



2024UDOS0004

Andoingo Udala

**Akta: Osoko Udalbatza**

OHIKO BILKURA: 2024/03/21

**Acta: Pleno Municipal**

SESIÓN ORDINARIA: 21/03/2024

Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos

**Bildutakoak: / Asistentes:**

Alkatea / El Alcalde: Andoni Alvarez Lete

**Zinegotziak / Concejales/as:**

<b>EH-Bildu</b>	Marta Lasa Goñi
	Xabier Fondón Pajares
	Garazi Usandizaga Zubiria
	Iosu Mateo Torrillos
	Haizea Barandiaran Zubillaga
<b>PSE-EE</b>	Diego Barrasa Ruiz
	Larraitz Arriola Larrarte
	Maidier Lainez Lazcoz
	José Luis Verdasco Gutierrez
	Ascensión Parrón Peguero
<b>EAJ-PNV</b>	Aritz Alkain López
	María Belén Moreno Méndez
	Imanol Goenaga Egibar
<b>Elkarrekin Podemos</b>	Idoia Mikelez Alonso
	M <sup>a</sup> Sagrario Ruiz Fernández
	Jose Mari Iparragirre Balda

Akta Zenbakia	<b>00000004</b>
Eguna	<b>2024/03/21</b>
Hasiera	<b>19:00</b>
Amaiera	<b>19:30</b>

**Behin-behineko idazkaria:**

María Uriarte Zurikarai

**Kontuhartzailea**Myriam Lizaso  
Arruabarrena**Interpretaria**

Jon Unanue López

**Gai Zerrenda:****Orden del Día:****Xedapenak**

1. Udal Araudi Organikoaren aldaketa proposamenaren hasierako onarpena.
2. Goiburu, Buruntza, Sorabilla eta Leizotz auzoetako baserrien izendegiak behin betiko izaeraz onartzeko garaian Euskaltzaindiak antzemandako hutsegiteak zuzentzea.
3. Ordenantza fiskalen aldaketa proposamena (musika eskola, haurreskola, EIOZ).
4. Andoainen enplegua, ekintzaitza eta negozioak modernizatu eta sendotzeko laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza aldatzeko proposamenaren hasierako onarpena.

**Parte Dispositiva**

- 1.- Aprobación inicial de la propuesta de modificación del Reglamento Orgánico Municipal.
- 2.- Nomenclaturas definitivas de los caseríos de los barrios de Goiburu, Buruntza, Sorabilla y Leizotz, subsanar las faltas detectadas por Euskaltzaindia en el momento de su admisión.
- 3.- Propuesta de modificación de ordenanzas fiscales (escuela de música, haurreskola, ICIO)
- 4.- Aprobación inicial de la propuesta de modificación de la Ordenanza reguladora de las bases para la concesión de ayudas para el empleo, el emprendimiento y la modernización y consolidación de negocios en Andoain.

**Kontrola**

5. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 315/2024 zenbakidunetik 503/2024 zenbakidunera eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea, zehazki, 5/2024.

**Parte de Control**

- 5.- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la n° 315/2024 y la n° 503/2024 y de los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno Local, en concreto los comprendidos entre el



aktatik 6/2024 aktara.

6. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

acta nº 5/2024 al acta nº 6/2024.

6.- Ruegos, preguntas y propuestas.

---

**Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzten da.**

---

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on eta ongi etorri 2024ko martxoko ohiko udalbatza honetara eta besterik gabe, udalbatzari hasiera emango diogu.”

**1. Udal Araudi Organikoaren aldaketa proposamenaren hasierako onarpena.**

Gaur egun indarrean dagoen Andoingo Udalaren Erregelamendu Organikoak, 30. artikuluan, toki-korporazioko kideen ordainsari eta dedikazio eskusibo eta partzialei buruzko erregulazioa jasotzen du. Erregulazio horrek ezartzen du, besteak beste, dedikazio eskusiboaren edo partzialaren araubidea, dedikazioaren kopuruari eta ehunekoei dagokienez, EUDELEk zehazten duena izango dela gehienez ere. Eduki hori 2014ko urtarrilaren 30eko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez sartu zen (2014-03-20ko GAO).

Arduraldi eskusiboko edo partzialeko araubide hori, EUDELEk ezarritako kopuruari eta dedikazio-ehunekoei dagokienez, Udal Gobernagarritasunerako eta zinegotziek eta alkateek beren karguan askatasunez jarduteko Akordioan jasota zegoen. Akordio hori EUDELEn Batzorde Betearazleak onartu zuen 2007ko abenduaren 20an egindako bileran.

Gogorarazi behar da akordio hori onartu zenean ez zegoela dedikazio horiek eta horiei lotutako ordainsariak mugatzen zituen legezko araudirik. Hala ere, 2016an, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea onartu zen, eta toki-erakundeen ordezkarien eskubide ekonomikoei eta arduraldi-araubideari buruzko alderdia arautu zen. Besteak beste, honako hau ezarri zen: arduraldi eskusiborako eskubidea aitortzen zaio alkateari, berariaz uko egin ezean, eta ordainsaria jasotzeko eskubidea eta Gizarte Segurantzaren alta ematekoa 1.000 biztanletik gorako udalerritan; era berean, 10.000 biztanletik gorako udalerriek bermatu egin beharko dute oposizioko zinegotzi bat, gutxienez, egongo dela arduraldi eskusiboan. Araudi autonomiko horrek gaiari buruzko oinarritzko araudia garatzen du, eta Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bidez onartu zen. Lege horrek toki-korporazioetako kideen ordainsari-araubide berri bat ezarri zuen, eta xedatu zuen Estatuko Aurrekontu Orokorrek urtero zehaztuko dutela toki-korporazioetako kideek ordainsari eta bertaratze kontzeptu guztiengatik guztira jaso dezaketene gehieneko muga (Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, foru-organoei dagokie ordainsari eta bertaratze guztien gehieneko mugak zehaztea, aipatutako 27/2013 Legearen bigarren xedapen gehigarriarekin bat etorritik). Horrez gain, mugatu egiten du arduraldi eskusiboko toki-erakundeetako kargu publikodunen kopurua biztanleria-tarteen arabera, eta Andoingo Udalarik dagokio, egungo biztanleria oinarri hartuta, gehienez ere bost kide izatea arduraldi eskusiboan. Araudi horrek, bestalde, ez du mugarik ezartzen arduraldi partzialeko erregimenean karguak bete ditzaketene zinegotzien kopuruari dagokionez.

Beraz, ikus daiteke Eudelen akordio hori gaudituta geratu dela, eta argudiatu daiteke aipatutako ondorengo lege-araudiak, lege-mailarekin ezarri zuen araudiak, arestian aipatutako mugak zaharkitu dituela. Beraz, ulertzen da Udalak lege-arau horiek eta horietan ezarritako mugak aplikatu behar dituela, 2007. urteko akordio hori aplikatu beharrean. EUDELEn bertan egindako kontsultetan, ez da beste akordiorik onartu, orain araubide hori mugatzen duen lege-esparru bat dagoelako, eta, gainera, ez dago konstantziarik, 2007ko akordio hura gaurko egunez udaletan aplikatzen ari denik.

Alkatetzaren honek, azaldutakoa kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen du Udal Erregelamendu Organikoa aldatzea, EUDELEk ezartzen dituen gehienekoei buruzko erreferentzia hori kentze aldera. Horrela, aurrerantzean, Udalbatzaren akordioek finkatuko dituzte dedikazio-kopurua eta dagozkien



ordainsariak. Gainera, finkatze hori ez Erregelamendu Organikotik, baizik udalbatzarraren erabakien bidez egitea hobesten da. Araudiak ez du eskatzen erabaki horiek Erregelamendu Organikoan sartzea, osoko bilkuren erabakiak izatea baizik. Gainera, erabaki horiek hartzeko prozedura zorrotzak bete behar dira, izaera organikoko arauak aldatzeko. Proposatutako aldaketa onartzen eta indarrean jartzen bada, Osoko Bilkurak, ondoren, dagokion erabakia hartu ahal izango du dagokion dedikazioak finkatzeko, indarrean dagoen legeriak ezartzen duen esparruaren barruan.

Era berean, Eudelen Gobernagarritasun Akordioaren arabera, Andoainen, dedikazio eskusiboa edo partziala duten zinegotzien kopurua alkateari, gobernu-taldeko zinegotzi bati eta gobernuaren eta oposizioaren artean banatzeko beste hiru zinegotzietara mugatzen da, eta hori ez da nahikoa, bai Udalak gero eta erantzukizun eta eginkizun gehiago hartu dituelako bere gain muga hori EUDELEk ezarri zuenetik, bai 2/2016 Legeak berak udalerriei eman zizkien eskumenengatik, bai Udala bere eskumeneko zerbitzu publikoak ematean eraginkortasuna hobetzeko ezartzen ari den antolaketa-eredu berriagatik. Izan ere, Udala eredu berri bat ezartzen ari da, udal-mailan hiru arlo edo lantalde orokor ezartzean oinarritzen dena, bai eta hiru arlo horiek koordinatzeko eginkizuna duen organo bat ezartzean ere. Ildo horretan, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak adierazten du tokiko ordezkarien estatutuak bermatu egin behar duela beren agintaldia askatasunez betetzea.

Ildo horretan, beharrezkoa da Udal Erregelamendu Organikoaren aldaketa aztertzea, lantzea eta ondoren onartzea, toki-erakundeek dagokien erregelamendu- eta autoantolaketa-ahala baliatuz, indarreko araudian xedatutakoaren arabera, zehazki, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 128. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldaketa horren ondorioz, 30.1.a) artikuluan azken paragrafoa ezabatu behar da. Honela dio: *Denbora osoko edo zatikako jardumaldiak, zenbakiari eta portzentaiei dagokionez, Eudelek zehazten duenaren arabera izango dira.* Proposamen honen helburua ez da ROMeko gainerako artikulua aldatzea, gaur egun indarrean dagoen idazkerari eutsiko diotelarik.

Ikusi da Idazkaritza Nagusiak 2024ko martxoaren 8an egindako txosten juridikoa, espedientean jasota dagoena.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan legez aurreikusitako prozedura kontuan hartuta.

Aldaketa-proposamen hau bat dator erregulazio onaren printzipioekin, zeinen arabera administrazio publikoek jardun behar duten legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzean, hala nola premiaren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan aurreikusitakoak.

Ondorio horietarako, agerian jartzen da premia- eta eraginkortasun-printzipioa betetzen dela, egokia baita ROMa errealitatera eta egungo arau-esparrura egokitzeko, eta arauak ere betetzen du proportzionaltasun-printzipioa; izan ere, bitarteko beharrezkoa eta nahikoa da lortu nahi den helburua lortzeko, eta helburu hori lortzeko ezinbestekoa den erregulazioa jasotzen du. Era berean, segurtasun juridikoaren printzipioarekin bat dator, eta indartu egiten du; izan ere, erregelamenduaren aldaketaren helburuetako bat azken urteetako arau-berrikuntzetara egokitzea da, haien edukiari eragiten baitiote, eta, horrela, gainerako ordenamendu juridikoarekiko koherentziari eusten dio, argitasun handiena bermatuz. Gardentasun-printzipioari dagokionez, behar bezala azalduta geratzen dira aldaketa horrek lortu nahi dituen helburuak, eta haren izapidetzea legez ezarritako prozeduraren mende egongo da. Prozedura horren barruan, nahitaezko jendaurreko informazioaren izapidea sartzen da.

Espediente honen izaera kontuan hartuta, ez da beharrezkoa izan Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan aipatzen den aurretiazko kontsultaren izapidea egitea, artikulua horren laugarren apartatua xedatutakoaren arabera.

Ikusirik, Langilegoa, Antolakuntza eta Barne Araugintza Batzordeak 2024ko martxoaren 13ko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:



“Dakizuen bezala, gure Udalaren erregelamendu edo arau organikoaren hogeitahamar bostgarren puntuak, Toki Korporazioaren ordainsariak eta dedikazioak erregulatzen ditu.

“Araua 2007an zeneukaten onartua eta 2011n hasi zen aplikatzen hemen Andoingo udaletxean. Kontua da Udalaren berrantolaketaren gabiltzan honetan jabetu garela ba araudi hori oso zaharkitua dagoela eta gainera horrela adierazi digute Eudelekin izandako kontsultetan. Eurekin jarri ginenean harremanetan, ez zuten ezagutzen gaur egun, nolabait esan, arau hori edo jarraitzen zuen beste udatik, eta bestetik, 2016an Euskadiko Toki Erakundearen onartutako Legean zera zioen, 10.000tik gorako udalerrietan gehienez ere jardun osoko bost liberazio egon ahal izango zirela, eta nahi adina partzial edo.

“Zuekin izandako bilera ezberdinetan, ahoz adierazi dizuegu zein den gure proposamena. Ez da inondik inora ere gehiengo horietara iristen, baina bai eguneratzea eta gaurkotzea pixka bat eta egokitzea, hemen dauzkagunak, eta horretarako nahitaezkoa da udal erregelamendu organikoaren 30. puntu hau kentzea. Horrela ahalbideratuko genuke hemendik aurrera, betiere legearen barruan udal araudia izatea hau udalbatzako kideak beraien ordainsariak eta dedikazioak kudeatzeko. Orduan, gaur proposatzen dena bozkatzeko zera da, gure Erregelamendu organikotik 30 puntu hori kentzea. Honen inguruan ez dakit zerbait esan nahi deuzen.”

Jarraian, Lainez andreak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on, muy buenas tardes. Con respecto a esta modificación del Reglamento, como han dicho ustedes, una actualización del reglamento orgánico municipal, con respecto a las modificaciones que durante años atrás, modificaciones normativas, que se han ido realizando, cierto es así, pero que sí que es cierto que nos llama la atención en la forma, en los tiempos y la necesidad con la que se realiza esta modificación; como usted ha dicho, es como consecuencia del estudio organizativo que está realizando el Ayuntamiento, pero resulta sorprendente que la primera medida que se trae como consecuencia de ese estudio, que todavía está en fase de estudio, todavía no estamos en esa reorganización o en esa nueva reorganización, sea precisamente posibilitar que se incrementen el número de liberaciones de concejales en este ayuntamiento.

“Dicho esto, para que todo el mundo entienda, consiste en incrementar el porcentaje o el número de concejales que dispongan de una nómina del ayuntamiento, con lo que ello supone para los costes municipales.

“Desde el pasado 11 de marzo, que es cuando nos reunimos, ustedes ya nos trasladaron esta propuesta, y en ese momento nosotros les indicamos que entendíamos que esto se podía haber realizado de otra forma o haber llevado otro tipo, otra hoja de ruta diferente. Ciertamente es que ustedes ya nos trasladaron allí y que, por lo menos, lo dieron a entender, que su hoja de ruta la tienen hecha. Manejan un incremento de estas liberaciones.

“En definitiva, desde el grupo municipal socialista no vemos objeción, desde un punto de vista jurídico, a esta modificación, pero entendemos que el fondo y las formas, pues no, no han sido correctas. Mila esker.”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Izan genuen bilera hartan esan genizuen denbora gehiago behar bazen, gu prest geundela ba martxoko batzordera ekarri beharrean apirileko udalbatzara eramateko. Esan genizuen lasai egoteko, eta ez zenutenez batzordean horrelakorik adierazi, ba gu martxoko udalbatzara ekarri dugu.

“Eta honek udalari soldatak gehiago gehituko direla esaten denaren inguruan. Batetik esan, guk uste dugu berrantolaketa ondo lan egiteko beharrezko aldaketa da. Eta bestetik, ez dugu ahaztu behar hau salbuespenezko neurri bat izan zela, 2011n hartu zena, eta salbuespen hori eragin zuen 2007-2011 legealdian zegoen liberazio kopuru izugarri altuak. Eta, nik uste dut, gogoan izango duzue da zeintzuk egon ziren 2007-2011 legealdian herri hau gobernatzen. Hitzik gabe.”

Berrito ere, Lainez andreak hartu du hitza, honakoa erantzuteko:

“Sí, por eso decíamos que no le vemos problema jurídico. Por eso no hemos puesto inconveniente a que se traiga al pleno de hoy, porque jurídicamente no hay mayor problema, pero sí que llama la atención, porque además fue usted mismo en el que en la reunión que se hizo con la ciudadanía trasladó que el gasto corriente del ayuntamiento era muy alto y se hablaba de reducir gastos y de tomar medidas que



fueran a llevar a la reducción, y, como se decía antes, incluso en la reorganización se hablaba de tomar otra serie de medidas. Pues nos ha sorprendido, y eso es lo que queremos manifestar hoy. Nos ha sorprendido que la primera medida que se traiga para debate y aprobación sea precisamente esta, que es legal, si se puede hacer también, pero que nos ha sorprendido y es lo que queremos poner de manifiesto. Eskerrik asko.”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Gaur hona ekartzen da, prozedura luzeena honek duelako, besteak prozedura askoz ere laburragoa daukate eta horregatik ekarri dugu, besterik gabe bozketan jarriko dugun puntua.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EE udal taldeko zinegotzien abstentzioarekin, honakoa erabaki du:

**Lehenengoa.**- Andoingo Udal Erregelamendu Organikoaren (ROM) aldaketari hasierako onespena ematea, honela:

Ezabatu egiten da 30.1.a) artikulua azken paragrafoa, zeinaren testua honako hau baita: Denbora osoko edo zatikako jardunaldiak, zenbakiari eta portzentaiei dagokionez, Eudelek zehazten duenaren arabera izango dira

**Bigarrena.**- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren web-atarian argitaratzea, herritarrek egoki irizitako erreklamazioak eta/edo iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten, 30 egun balioduneko epean, erabakia Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**Hirugarrena.**- Idazkaritza Nagusiak aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunei buruzko txostena egingo du, eta Osoko Bilkurari helaraziko dio dagokion baiesteke edo ezesteko proposamena, bai eta ROMaren aldaketa behin betiko onartzeko ere, proposatutako baldintzetan.

**Laugarrena.**- Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, ROMaren aldaketa behin betiko onartutzat joko da; horretarako, Alkatetzak prozedura amaitzeko eta indarrean jartzeko beharrezkoak diren izapideak aginduko ditu.

**Bosgarrena.**- Behin betiko onespeneren erabakia edo, hala badagokio, kategoria horretara automatikoki igotako hasierako onespeneren erabakia, onartutako aldaketaren testu osoarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean.

## 2. Goiburu, Buruntza, Sorabilla eta Leizotz auzoetako baserrien izendegiak behin betiko izaeraz onartzeko garaian Euskaltzaindiak antzemandako hutsegiteak zuzentzea.

Ikusirik Andoingo Udalak herriko baserri eta landa-etxe guztien izendegia osatu eta onartzeko burutu duen eginbidea, zeinak, kronologikoki, jarraian adierazten den egutegia osatu baitzuen:

- **1991-05-02.**- Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeak Amaia Usabiagaren Andoingo azterketa toponimikoa ontzat eman zuen, oro har, azterlana bikaintzat iriziz eta bide emanaz *Onomasticon Vasconiae* bilduman argitaratu eta mapa toponimikoa osatzeko.
- **1993-05.**- Andoingo toponimia liburuaren argitalpena *Onomasticon Vasconiae* bilduman (X), behin Euskaltzaindiak Amaia Usabiagaren azterlana ontzat eman ondoren.
- **2006-07-21.**- Osoko Udalbatzak Amaia Usabiagak prestaturiko Andoingo toponimo nagusien izendegia onartu zuen, behin Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak ontzat eman ondoren, baina ez zuen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman.
- **2018-04-26.**- Osoko Udalbatzak **GOIBURU** auzoko baserri eta landa-etxeen izendegia BEHIN-BEHINGO izaeraz onartu zuen eta GAO n argitara eman, etxejabeei alegazioak aurkezteko epea zabalduz.
- **2019-05.** Osoko Udalbatzak **BURUNTZA** auzoko baserri eta landa-etxeen izendegia BEHIN-BEHINGOZ onartu zuen eta GAO n argitara eman, etxejabeei alegazioak aurkezteko epea zabalduz.
- **2019-12-18.**- Osoko Udalbatzak **GOIBURU** auzoko baserri eta landa-etxeen izendegia BEHIN BETIKOZ onartu zuen, aurkezturiko alegazio bat onartzearekin batera (Ortzeriagoka = Ortzaika, teknikariaren kontrako txostena egon arren).



- **2021-07-22.-** Osoko Udalbatzak **SORABILLA eta LEIZOTZ** auzoetako baserri eta landa-etxeen izendegia behin-behingo onartu zuen eta GAO n argitara eman, etxejabeen alegazioak aurkezteko epea zabalduz.

- **2022-07-21.-** Osoko Udalbatzak BURUNTZA, SORABILLA eta LEIZOTZ auzoetako baserri eta landa-etxeen izendegiak behin betikoz onartu zituen, aurkezturiko hainbat alegazio onartzearekin batera, Euskaltzaindiaren Onomastika Zerbitzuari eskatu ondoren aurkezturiko alegazioen gaineko txostena.

- **2022-11-16.-** Goiburua, Buruntza, Leizotz eta Sorabilla auzoetako izendegiak Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusira igorri ziren, Euskadiko Erkidego Autonomoko Izen Ofizialen Erregistroan idazpenezko xedez.

Aintzat izanik, lau auzoetako izendegiei behin-betiko onarpena emateko garaian Andoingo Udalak zuzentarau eta ardatz gisa hartu zuela, batetik, Amaia Usabiaga filologoak 1988-1991 urte bitartean egindako azterketa toponimikoa eta horren gainean Euskaltzaindiak 1991n emandako aldeko irizpena, nola baita ere, urte batzuk geroago, 2006an, Amaia Usabiagak prestatu zuen txostena toponimo nagusien izendegia onartzeko, zeinak oinarri zuen *Onomasticon Vasconiae* bilduman (X) argitara emandako liburua; azken hau Euskaltzaindiak berak ere onetsi zuen 2006an. Alegia, lau auzoetako baserrien izendegiak onartzeko garaian ez zitzaiola Onomastika Batzordeari txostenik eskatu, aurkezturiko alegazioei erantzuna ematerakoan izan ezik.

Aintzat izanik, lau auzoetako baserrien izendegiak behin betikoz onartu ondoren, apirilaren 5eko 41/2022 Dekretuak agindutakoari jarraiki, Andoingo Udalak onarturiko izendegiak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzara bidali zituela, Euskadiko Erkidego Autonomoko izen ofizialen erroldan onartu berri zirenak idazpenezko geratu zitezen eta, horren ondorioz, Zuzendaritza horretatik Andoingo Udalarik eskatu zitzaiola osa zezala behar bezala espedientea Euskaltzaindiaren txostena igorritik, zeina ez baitzitzaion eskatu orain 20 urte bere oniritzia emanda zuelako.

Aintzat izanik, 2023ko urriaren 30ean Andoingo Udalak onarturiko toponimoen gaineko aldeko txostena eskatu ziola Euskaltzaindiari, Eusko Jaurlaritzatik egindako eskaerari erantzun ahal izateko eta Euskaltzaindiko Onomastika Zerbitzuak, igorritako zerrenda osoa gainbegiratu eta bertan hainbat hutsegite zuzendu eta egokitzapen egin beharra antzeman zuela, Andoingo Udaleko Euskara Zerbitzuari horren berri emanez 2024ko otsailaren 12ko txostenean.

Egoki iritzirik Euskaltzaindiko Onomastika Zerbitzuak bere txostenean proposatzen dituen emendatze eta zuzenketa guztiei, ia guztiak Amaia Usabiagak egindako eta Udalak onarturiko proposamenean jasorikoa baitira eta, beraz, horrela behar zutenak jasota.

Egoki iritzirik Euskaltzaindiko Onomastika Zerbitzuko buru Mikel Gorrotxategi jaunak 2024ko otsailaren 26ko Euskararen Normalkuntzarako Batzordearen bilkuran bere txostenari buruz emandako azalpenei.

Ikusirik, 2024ko otsailaren 26ko Euskararen Normalkuntzarako Batzorde Irizpenemailearen irizpena.

Lehendabizi, Lasa andreak, Euskararen Normalizaziorako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on denoi. Gaia kokatze aldera eta proposamena ulertzeko, landutako prozesuaren laburpen txiki bat egiten saiatuko naiz.

“2023ko urrian Andoingo udalak onarturiko toponimoen gaineko aldeko txostena eskatu zion Euskaltzaindiari, Eusko Jaurlaritzatik egindako eskaerari erantzun ahal izateko eta Euskaltzaindiako Onomastika Zerbitzuak igorritako zerrenda osoa gainbegiratu eta bertan hainbat hutsegite zuzendu eta egokitzapen egin beharra antzeman zuen Andoingo udaleko Euskara Zerbitzuari horren berri emanez. 2024ko otsailean.

“Bertan, Euskaltzaindiako Onomastika Zerbitzuko burua den Mikel Gorrotxategi jaunak 2024ko otsailaren 26an Euskararen Normalkuntzarako Batzordean bilkuran bere txostenari buruzko emandako azalpenak, konpartitu zituen gurekin.

“Ondorioz, Euskara Normalizatzeko Batzorde irizpenemaileko buru bezala, honakoa proposatzen



dut. Euskaltzaindiaren Onomastika Zerbitzuak Andoingo udalak, Goiburu, Buruntza, Sorabilla eta Leizotz auzoetako baserri eta landa etxeen izendegiaren gainean harturiko behin-behineko erabakiari egindako zuzenketa eta emendakinak onartzea.

“Zuzendu behar diren izenak hauek hauek dira: Aizpurua, Aizpuruanea. Allurraldegain, Eguarasaundi, Manterolaenea eta Ortzaiika

“Hortaz aparte, izenetan egin behar diren hainbat zuzenketa grafiko hutsak dira.

“Onomastika Batzordeak onartu eta Euskara Agerkarian emandako etxeen izen berriak arautzeko irizpideak. Bi izeneko txostenean zehazten da etxe izenean osagai guztiak letra larriz eman behar direla.

“Adibidez, Gure Aterpea, Gure Atsegina, Gure Babesa, Gure Kabia eta Gure Legorpea. Denak ere beti letra larriz idatzi beharko dira hemendik aurrera, bai. Eta bukatzeko, alonimoak, zenbakietan. Etxe batek izen bat edo gehiago izan dezake. Horrelakoetan, bigarrena, adiera hori, alonimoa, alegia, parentesi artean ematea da gomendioa. Zerrendan bertan ageri den Kaxkabeltza, Olabarrieta, parentesi artean, kasuan bezala.

“Garro, Garroberri alonimoa gehi dakiok eta Ubalategi, Ubalategiaundi alonimoa gehi dakiok. Bukatzeko, Ortzeriagoka toponimiari dagokionez, etxejabeak aurkezturiko alegazioa, Osoko Udalbatzak onartu zuenez, Ortzeriagoka alonimo gisa jasoko da, Ortzaiika toponimoa.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Euskaltzaindiaren Onomastika Zerbitzuak Andoingo Udalak Goiburu, Buruntza, Sorabilla eta Leizotz auzoetako baserri eta landa-etxeen izendegien gainean harturiko behin-betiko erabakiari egindako zuzenketa eta emendakinak onartzea, ondokoak baitira:

Zuzendu behar diren izenak:

- Aizpurua > Aizpuruanea. Liburuan eta berrikusketan Aizpuruanea hobetsi zen.
- Allurraldegain > Allurraldegarraikoa. Liburuan eta berrikusketan Allurraldegarraikoa hobetsi zen.
- Eguarasaundi > Eguaratsaundi. Izenak [t] ahoskera du.
- Manterola > Manterolaenea. Orain arte egindako planoetan (hiru 1994tik 2018ra bitartean) Manterolaenea izen egokia azaltzen da.

- Ortzaiika > Ortzeriagoka. Liburuan eta berrikusketan Ortzeriagoka hobetsi zen.

Izenetan egin behar diren zuzenketa grafiko hutsak:

Onomastika batzordeak onartu eta Euskara agerkarian emandako “Etxe-izen berriak arautzeko irizpideak”<sup>2</sup> izeneko txostenean zehazten da etxe-izenen osagai guztiak letra larriz eman behar direla:

- Gure aterpea > Gure Aterpea
- Gure atsegina > Gure Atsegina
- Gure babesa > Gure Babesa
- Gure kabia > Gure Kabia
- Gure legorpea > Gure Legorpea

Alonimoak:

Zenbaitetan etxe batek izen bat edo gehiago izan dezake. Holakoetan bigarren adiera hori, alonimoa alegia, parentesi artean ematea da gomendioa, zerrendan bertan ageri den Kaskabeltza (Olabarrieta) kasuan bezala:

- Garro. Garroberri alonimoa gehi dakiok.
- Ubalategi. Ubalategiaundi alonimoa gehi dakiok.

2.- Aipatu zuzenketa eta emendakinak egitea Osoko Udalbatzak behin betikoz 2019-12-18 eta 2022-07-21eko batzarraldietan onartutako auzoetako baserri eta landa-etxeen izendegian, zerrenda zuzendua argitara emanez Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Ortzeriagoka toponimoari dagokionez, etxejabeak aurkezturiko alegazioa Osoko Udalbatzak onartu zuenez, Ortzeriagoka izenaren alonimo gisa jasoko da *Ortzaiika* toponimoa.

3.- Aipatu izendegia eta Euskaltzaindiaren txostena igortzea Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza,



Etxebizitza eta Garraio Saileko Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzara, idazpe dezan Euskadiko Erkidego Autonomoko Izendegi Geografiko Ofizialen Erregistroan, 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koak, 45.2 artikuluan agindutakoari jarraiki.

4.- Erabakia jakinaraztea Euskaltzaindiako Onomastika Sailari, Euskara Lansailari eta eskualdeko hedabideei.

5.- Izendegia Euskal Autonomi Erkidegoko Izendegi Geografiko ofizialean idazpetzen denetik aurrera izango da ofiziala, 79/2019 Dekretuaren 45.6 artikulua araberak.

6.- Behin Izendegia Euskal Autonomi Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean idazpetzen denean, dagokion iragarkia eta aipatutako izendegiaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta udalaren webgunean argitaratzea, eta Andoingo udaleko errolda eta erregistro guztietan onarturiko toponimo ofizialduak jasotzea.

7.- Halaber, eta behin izendegia Euskal Autonomi Erdikegoko izendegi Geografiko Ofizialean inskribatzen denean, izendegi berriak nolabait eragiten dien erakunde guztiei jakinaraztea (Jabetza Erregistroa, Katastroa, Poste Bulegoa, Estatistikako Institutu Nazionala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa Departamentua, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, Barne Ministerioa, konpainia elektrikoak, gasekoak, telefoniakoak eta abar), baita dagokien Udaleko lansail guztiei ere, behar diren aldaketak egin daitezken. Era berean, erabakia jakinaraztea Udaleko Hirigintza eta Ingurumen lansailari, dagozkion seinaleztapen lanak egin ditzan eta Estatistika lansailari ere, Biztanleen Erroldan dagozkion helbide-aldaketak egin ditzan.

### **3. Ordenantza fiskalen aldaketa proposamena (musika eskola, haurreskola, EIOZ).**

Konstituzioko 140. artikulua udalerriei aitortzen dien autonomiaren oinarriaren gainean, Toki Jardunbideko Oinarri buruzko apirilaren 2-ko 7/1985 Legeko 4.1.a) artikulua udalerriei bere burua antolatzeko ahalmena aitortzen die.

Ikusirik Hezkuntza eta Kultura Batzorde Informatzaileak 2024/03/07 eta 2024/03/08eko bileran emandako aldeko irizpenak.

Ikusirik, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2024/03/13ko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Musika Eskola eta Haur Eskolako ordenantza fiskaletan aldaketa proposamena da. Alde batetik, haur eskolaren eta bai musika eskolaren kasuan tasa kontsolidatzea proposatzen da. Eta bereziki nabarmendu nahi dugu haur eskolaren kasuan, iaz hartutako bidetik, doakoa izango da, hau da, jangela-zerbitzua kobratuko da, baina doakoa izango da.

“Bi proposamen desberdin zeuden. Udal Musika Eskolarena eta Haur Eskolarena. Alderdi Sozialistaren ekarpenez, bi hobariak edo bateratzea proposatu zuen Alderdi Sozialistak Kultura Batzordean. Denek nahiko ondo ikusten zuten, baina Haur Eskolaren zuzendariaren txosten bat edo eskatzen zen bideragarritasuna edo bideragarria zela adierazten zuena. Txosten hori egin zuen Haur Eskolako zuzendariak, eta orduan ekartzen dena da bi hobariak bateratuak.”

Alkate jaunak, proposamena bozketara jarri baino lehenago, Lainez andreak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Como acaba de decir el señor Álvarez, efectivamente, se llevaron a la Comisión de Cultura la propuesta de las tasas, tanto para la Musika Eskola como para el Haur Eskola. Y efectivamente, había unas diferencias y entendíamos que no tenían mucho sentido, teniendo en cuenta al final en todas nuestras tasas, pues, debemos intentar que los criterios tanto en las tasas como las bonificaciones sean ecuanimes y sean los mismos independientemente del servicio que esté produciendo. Y sobre todo porque van destinados a la misma ciudadanía. Sobre todo, y más que nada por precisar un poco los datos que ha trasladado el señor Álvarez, van dirigidas tanto a las familias numerosas como las monoparentales y a las personas con discapacidad. En este sentido, quedaría un 15% de bonificación a las familias con una, un progenitor y una hija o hijo, y un 30% en el caso de las familias con una progenitora y dos hijos o más, y en el caso también podríamos bonificar un 30% a las familias que tengan un único progenitor o





progenitora y tengan un hijo con discapacidad, y un 50% a las familias con dos o más progenitores que tengan también hijos e hijas con discapacidad.

“Decir que esta propuesta también venía, ya que la pusimos en marcha en la anterior legislatura, en las tasas del polideportivo y ayer incentivamos también el tema de las familias monoparentales y otras que se venían haciendo. Y, como decíamos, también es importante que se siga trabajando en esta línea, de cara a que las próximas tasas que aprobemos todos en octubre del 2024 de cara al 25, pues, se intente que todas los servicios y ordenanzas municipales vayan en la misma disposición. Y en ese sentido, agradecer a todos los partidos que se hayan hecho eco de la propuesta y se aprueba hoy de esa manera, si es que todo el mundo lo quiere, eskerrik asko.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Ordenantza fiskalak aldatzeko proposamena onartzea, hasierako izaeraz eta datako ondorioekin. Aldatzen diren ordenantzak honakoak dira:

**5.- Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren Ordenantza Fiskal arautzailea**

Hurrengo artikulak aldatzen dira:

*Artículo 3.*

Constituye el hecho imponible de este impuesto la realización de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija la obtención de la correspondiente licencia de obras o urbanística se haya obtenido o no dicha licencia, o para la que se exija presentación de declaración responsable o comunicación previa siempre que su expedición o la actividad de control corresponda a este Ayuntamiento.

*7. artikulua.*

Zergadunaren ordezeko subjektu pasibo eritziko zaio dagozkion lizentziak eskatu, erantzukizuneko aitorpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkezten dituztenak edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egin ditzanari, zergaduna bera ez bada.

*11. artikulua.*

Aginduzko lizentzia ematerakoan, Erantzukizuneko aitorpena zein aurretiazko komunikazioa aurkezten bada behin-behingo likidazioa egingo da, oinarri ezargarria doakienak aurkezturiko aurrekontuaren arabera zehaztuko dela, baldin eta aurrekontu hori dagokion Elkargo Ofizialak ikuskatua bazen; horrela ez bada, edo lizentzia lortu ez denean, udal-teknikariek, egitasmoari antzemandako kostuaren arabera, zehaztuko dute oinarri ezargarria.

<b>7.10.- Galardi Haurreskolako jantoki zerbitzua hilean</b>	
<b>Zaintza eta egonaldi zerbitzua:</b>	salbuetsita
<b>Jantoki-zerbitzuaren kuota bakarra/hileko.</b>	120 €
Bularreko haurrek ez dute zerbitzu hori ordainduko beren elikaduran dieta sartu arte, hau da, 6 hilabeteekin.	

**Tasa** hori hileroko kobratuko da, hilabetea amaitu ondoren. Baina, haurraren onarpenaren ebazpenaren notifikazioa jaso bezain azkar, hilabete baten kuotaren erdia kobratuko da eta kopuru hori haurra hasiko ez balitz ere, ez da itzuliko.

**Bajak:** aurreko urtean haurreskolan egonik bertan jarraitu nahi ez duten haurren kasuan, baja idatziz igorri beharko dute izena emateko ezarritako epe berean (matriculazio kanpainan).

Abian den ikasturterako, **apirilaren 20tik aurrera ez da inolako bazarrik onartuko**, eskaera hori behar bezala zurruturik ez baldin badago behintzat (egoitza aldaketa, ziurtaturiko gaixotzea, edo antzeko kasuak...).

Zuritu gabeko kasuetan, hilabete horiei dagozkien tasak kobratzen jarraituko dira ikasturtea amaitu



arte.

Ondo zuritutako kasuetan, apirilaren 30etik aurrera baja onartuko da, eta ikasturte amaiera arteko tasak ez dira kobratuko.

Onartutako bajak, eskaera aurkeztutako egunaren hurrengo hilabetean jarriko dira indarrean.

Ordainketetako atalean kuota guztiak ordaintzen ez dituzten familiek hurrengo ikasturteko matrikula berria egiteko eskubidea galduko dute.

**Hobariak**

1.- Galardi udal haurreskolara doan bigarren eta hurrengo seme-alabaren ordainsariaren ..... %20

2. Familia-ugariaren kasuan, Galardi haurreskolara doan seme-alaba kopurua kontuan hartu gabe.

- 3 seme-alaba arteko kategoria orokorreko familia ugariak ..... %30
- 4 seme-alabako kategoria orokorreko familia ugariak.....%50
- Kategoria bereziko familia ugariak.....80

**3.- Guraso bakarreko familiak, Galardi haurreskolara doan seme-alaba kopurua kontuan hartu gabe:**

- Guraso bat eta seme-alaba bat dituzten familiak..... % 15
- Guraso bat eta bi seme-alaba edo gehiago dituzten familiak..... % 30

(Familia-liburuaren kopia aurkeztu beharko dute matrikula-eskaerarekin eta/edo hobariarekin batera).

**4.- Desgaitasuna duten pertsonak dituzten familia eta bizikidetzak unitateak, Galardi haurreskolara doan seme-alaba kopurua kontuan hartu gabe.**

- Guraso edo seme-alaba desgaituak dituzten familiak..... % 30
- Bi guraso edo seme-alaba edo gehiago desgaitasuna dituzten familiak.....%50

(Desgaitasun-ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute, matrikularen eta/edo hobariaren eskaerarekin batera).

39/2015 Legearen 28. artikuluan, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan eta 38/2003 Legeko 14. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Andoingo Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren erregistroan eta NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobariak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzuen egiaztatze behar den informazioa kontsultatuko du zuzenean eta, bereziki, honako datu hauek: familia ugaria tituluaren datuak.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikularekin bat etorritik, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz, eta kasu horretan, udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak, edozein unetan, eskatzaileak hobariaren oinarri den baldintza galdu duela egiaztatzen balu, pertsona horrek hobari hori automatikoki galduko luke.

Hobari horiek ez dira metagarriak.

Ordainsariak murriztezinak izango dira, ondorengo kasuetan izan ezik:

**1.- %50eko** murriztapena haurren egokitzapen epealdian (lehenengo hilabetean) Aldez aurretik kobratutakoa egoera honetan hartzen da kontuan.

2.- Justifikaturiko arrazoiarengatik asistentzia falten kasuan izan ezik, beti ere hau astebetekoa baino luzeagoa denean; kasu horretan bazkariari dagokion gastua itzuliko da, zeina 2024/2025 ikasturtetik aurrera **3,00€**/egunean finkatua izan den.

Justifikatutako asistentzia falta (aste betekoa gutxienez), hori gertatu aurreko asteko azken bi egunetan jakinaraziko da idatziz. Gaitza edo istripuagatik denean, medikuen ziurtagiria ekarri beharko dute astebete barruan

3.- Jangela zerbitzua ezingo balitz eman egun bakoitzeko 3,00€ko deskontua egingo zaio.

**Ordainsari hauen iraunaldia:**

Tasa hauek 2024/2025 ikasturtetik aurrera egongo dira indarrean.

<b>7.9.- Udal Musika Eskola</b>	
---------------------------------	--



I. Maila	
Tailerra	231,07 €
II. Maila	
Funtsezko irakaskuntza + musika hizkuntza	531,33 €
Funtsezko irakaskuntza + talde orokorrak (parte hartzeko talde mugarik gabe)	461,00 €
Funtsezko irakaskuntza + musika hizkuntza + talde orokorrak (parte hartzeko talde mugarik gabe)	691,03 €
Funtsezko Irakaskuntza	395,15 €
Funtsezko Irakaskuntza (Abesbatza)	181,65 €
Musika hizkuntza	277,99 €
Musika hizkuntza + Funtsezko Irakaskuntza (Abesbatza)	383,04 €
III. Maila	
Funtsezko Irakaskuntza + talde orokorrak (parte hartzeko talde mugarik gabe)	461,00 €
IV. Maila	
Talde orokorrak (parte hartzeko talde mugarik gabe)	158,46 €
Banda	Salbuetsita Exento
Osagarriak (II eta III mailak) Musika formazio oinarrizkoa jatorri ezberdinetakoak diren edo desgaitasuna duten pertsonentzat.	93,64 €

**II. Maila:** Funtsezko irakaskuntza (musika tresna, kantua edo tresnarantz edo kanturantz orientazioa) eta honi dagokion praktika (tresna edo kantua) eta musika hizkuntza.

**III. Maila:** Funtsezko irakaskuntza (musika tresna edo kantua) eta honi dagokion praktika (tresna edo kantua).

**IV. Maila:** tresnarantz edo kanturantz taldea.

**III. eta IV. Mailako taldeak:** ganbera, konboak, orkestrak, abesbatza, banda.

#### Salbuespenak.

- Musika Hizkuntzan bakarrik matrikulatzeko, ezinbesteko baldintza izango da eskatzaileak eskatutako instrumentuaren irakaskuntza Udal Musika Eskola honek ez duela eskaintzen ziurtatzea.
- Funtsezko irakaskuntzan bakarrik matrikulatzen kasu berezietan besterik ez da onartuko, behar bezala arrazoituta dagoenean eta dagokionak horri buruzko txostena egin ondoren.
- Funtsezko irakaskuntza abesbatza denean, gai honetan bakarrik matrikulatzen uzteko, hizkuntza musikaleko oinarrizko maila bat erakutsi beharko da eta Eskolan eskaintzen diren gainontzeko gaietan inongo interesik ez edukitzea.
- Funtsezko irakaskuntza ikasketak udalerritik kanpo egiten dituzten ikasleei kuotaren %50eko dirulaguntza emango zaie, beti ere Andoingo Udal Musika Eskolak funtsezko irakaskuntza horren ikasketarik eskaintzen ez badu, eta 4 ikasturteko epe mugarekin.

#### Ikasle indartuak

Baldintza hori betetzen duten ikasturte horretan, ordaindu beharreko tasaren %75aren gehikuntza izango dute indartutako ikasgaietan.

#### Hobariak

##### 1.- Familia ugariak:

- Kategoria orokorra **3 seme-alaba** arte%30a
- Kategoria orokorra **4 seme-alaba**.....%50a
- Kategoria berezia.....%80a



**2.- Guraso bakarreko familiak:**

- Guraso bat eta seme-alaba bat dituzten familiak..... % 15
- Guraso bat eta bi seme-alaba edo gehiago dituzten familiak..... % 30

(Familia-liburuaren kopia aurkeztu beharko dute matrikula-eskaerarekin eta/edo hobariarekin batera).

**3.- Desgaitasuna duten pertsonak dituzten familia eta bizikidetzak unitateak (ikasgai osagarrietan ezik)**

-Guraso edo seme-alaba desgaituak dituzten familiak .....%30

-Bi guraso edo seme-alaba edo gehiagok desgaitasuna dituzten familiak..... % 50

(Desgaitasun-ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute, matrikularen eta/edo hobariaren eskaerarekin batera).

**4.- Famili bereko ikasleak:**

• Udal Musika Eskolara doan familia-unitate bereko edo elkarrekin bizitzen diren bigarren partaidea duen 1. matrikulan %15a.

- Udal Musika Eskolara doan familia-unitate bereko edo elkarrekin bizitzen diren hirugarren eta hurrengo partaideek duten 1. matrikulan %25a.

**5.- LGSra iristen ez diren 65 urtetik gorako ikasleak:**

- %30eko hobaria izango dute.

**6.- Gutxienean musika tresnak:**

• Metalezko musika tresnetan matrikulak (tronpetak izan ezik), lehenengo bi ikasturteetan %30eko hobaria izango du.

Langabezian dagoen ikaslegoari eta tresna hauetako batetan matrikulatzen bada, %70 hobaria emango zaio.

39/2015 Legearen 28. artikuluan, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan eta 38/2003 Legeko 14. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Andoingo Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren eta Gipuzkoako foru Aldundiaren erregistroetan eta NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobariak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzuen egiaztatze behar den informazioa kontsultatuko du zuzenean eta, bereziki, honako datu hauek: familia ugari titulua; langabetu bezala izen-emanda egotea eta aurreko urteko errenta aitortpenaren datuak.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikularekin bat etorriz, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak, edozein unetan, eskatzaileak hobariaren oinarri den baldintza galdu duela egiaztatzen balu, pertsona horrek hobari hori automatikoki galduko luke

Hobari hauek ez dira bateragarriak.

**Ordainketak.**

• 1. Ordainketa: 50,00 € izena ematerakoan. onarpenaren berri ematearekin batera. Matrikularen epea bukatu aurretik baja aurkezten ez baldin bada, diru hori berreskuratzeko eskubidea galdu egiten da.

• Gainontzekoa ikasturtean zehar, 9 hilabetetan.

**Bajak:**

Ikasturtea hasi eta 7 egun naturalen epean baja eskaera idatzia aurkezten bada, izena ematearengatik ordaindutako 50,00 €-ak bueltatuko dira.

2024ko irailaren 30a baino lehen baja emateko eskaera idatzia aurkezten bada, hurrengo hilabetean jarriko da indarrean. (2024ko irailako kuota ordaindu egin beharko da).

2024ko urriaren 1etik aurrera baja eskaera idatzia aurkezten bada, hilabete horretako eta ondorengo kuotak ezeztatzea edo, dagokionean, itzultzea onartuko da, honako kasu hauetan bakarrik, eta gainera, idatziz eskatu beharko da, kasuari dagokion ziurtagiria erantsiko delarik.

- Lan baldintzen aldaketak (ordutegia, lekua, lanbidea... enpresaren ziurtagiri bidez).
- Familia baldintzen aldaketa.
- Araututako ikasketa baldintzen aldaketa (ordutegia, lekua... ikastetxearen ziurtagiri bidez).



- Osasun arrazoiak (mediku edo profesionalaren ziurtagiri bidez).
- Ikasketa arrazoiak (tutore edo ikastetxearen ziurtagiria)
- Herritik kanpora bizitzera joan izatea (errola ziurtagiri bidez).

Baja eskaera kontuan hartzeko, idatziz aurkeztu beharko da, eta aurkeztutako hilaren hurrengoan jarriko da indarrean. Baja aurkezten den hilabeteko kuota ordaindu egin beharko da.

Ordainketetako atalean kuota guztiak ordaintzen ez dituzten ikasleek hurrengo ikasturteko matrikula berria egiteko eskubidea galduko dute.

**Indarraldia:**

Tasa hauek 2024/2025 ikasturtean egongo dira indarrean.

**4.- Andoainen enplegua, ekintzailatza eta negozioak modernizatu eta sendotzeko laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza aldatzeko proposamenaren hasierako onarpena.**

Ikusirik, Andoainen enplegua, ekintzailatza eta negozioak modernizatzea eta sendotzea sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantzaren aldaketa proposamena.

Ikusirik, Idazkariak 2024ko martxoaren 11n egindako txostena.

Ikusirik, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Teknikariak 2024ko martxoaren 11n egindako txostena.

Ikusirik, Enplegu eta Gazteria Teknikariak 2024ko martxoaren 8an egindako txostena.

Ikusirik, Sustapen Ekonomikoa, Enplegua eta Gazteria Batzorde Irizpenemaileak 2024ko martxoaren 13an emandako irizpena.

Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Gaur hona, iaz abiatutako diru-laguntzen moldaketa aurkezten da. Iaz jarri zen martxan Andoingo enpresa, komertzio eta autonomoentzako laguntzak, eta haien moldaketa bat ekartzen dugu gaur. Esan beharra dago diru-laguntza hauek edo, ordenantza hau, ordenantza bizia dela. Enpresek, merkatariek eta autonomoek dituzten beharrak etengabe aldatuz joango dira, eta aurre ikusten duguna da, guk ere gure diru laguntzak beraien beharretara egokitu ahal izateko, ba urtez urte aldaketak egin beharko ditugula. Hor aipatu beharra daukat, proposamen batekin joan ginen batzordera eta, batzordean bertan Eusko Alderdi Jeltzaleak bi ekarpen egin zituen. Bata irisgarritasunaren inguruan eta bestea eraldaketa energetikoaren inguruan, biak onartuak izan ziren, biak txertatu dira eta horiekin ekarri ditugu. Gogoratu nahi dut bost lerro hauek. kontratazioarako, eraldaketa energetikorako, lokalentzako, digitalizazioarako eta irisgarritasunerako.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Askotan bronka edo kexak esateko hartzen dugu hitza. Gaurkoan, gure poztasuna edo behintzat gure taldearen poztasuna elkar banatzea gustatuko litzaiguke. Bai, nik uste dut teknikoki Enplegu Sailak urteak daramatza lanketa honetan. Nik uste dut biziki, azken hilabeteetan askoz ere intentsoagoa izan da, baina denbora dararam lanean, bere esperientziatik joan direlako prospekzioen atzean ikusten askotan zein den tokiko ekonomiaren beharrak eta horren arabera ordenantza ahalik eta eraginkorra edo egokitzen. Beraz, lehenbiziko zoriona enpleguko lantaldeari, eta bigarrena politikoa baita ere Gobernu taldeari. Adostutako konpromezu, akordio horren baitan, tokiko ekonomia sustatzeko diru programa hau ez soilik bermatu edo blindatu, baizik eta sakondu, zabaldu edo hobetzeko konpromiso horren baitan hartutako hitz hori betetze bidean, gaur ekartzen dugulako proposamen hau.

“Beraz, bai zorionak talde teknikoari eta baita ere errekonozimendu politikoa baita ere. Hartutako hitz hori bete zelako. Eta alkateak aipatu dun bezala, ekarpen ugari egin dira. Bost lerro dira kontratazioari ereiten duten lerroak, bai digitalizazioari egiten duten lerroak, bai transformazio energetiko klimatikoari, irisgarritasunari alegia. Gizarteak dituen erronka nagusi horien aurrean, udalak, lehen lerroan dagoen Administrazioak jartzen du tresna bat eraginkorra. Eta “efectivamente”, batzordean egin nituen apreziazio batzuk, zeren irisgarritasuna bera ere aldatu zaigulako. Gaur egunean jada ez gara ari sentsibilitate fisikoaz hitz egiten, ari gara sentsoriala, kognitiboa eta abarrei buruz. Beraz, askoz ere irisgarritasun unibertsalagoaz edo zabalagoa. Asmoa da ahalik eta irisgarritasunaren alorrean egiten diren



ekimen ezberdin horiek diruz laguntzeko aukera izan dezatela.

“Eta berdina, efizientzia. Efizientzia hasiera batean ez da soilik argia edo argiztarena. Nik uste dut inportantea dela baita ere, ekipamenduak edo makinaria bezala deitu dugun hori, instalazioak, makinaria. Nik uste dut pixkanaka ordenantza egokitzen joan dela, bizia egokituz joan den neurrian, aldatzen joan dena, eta ziur gaude etorkizunean ere egokitzen joan beharko duela. Beraz, gaur gure poza adierazi nahiko genuke.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Onestea, hasierako izaeraz, Andoainen enplegua, ekintzaitetza eta negozioak modernizatzea eta sendotzea sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantzaren aldaketa ondoren zehazten den bezala:

a) Aldatzen da 3. Artikulua e), g) atalak, eta n) atala eransten da, horrela geratzen delarik:

a. “e) Antzeko jarduera: Deialdiaren urtean indarrean dagoen EJZ kodifikazioaren arabera, lehenbiziko hiru digituak berdinak izatea.

g) Barne-ekintzaitetza: Enpresa eta/edo enpresaburu indibidualek egindako jarduera ekonomiko berriak sortzea, betiere, produktu berriak gutxienez enplegu garbia sortzea ekarriko duen lanpostu zuzen bat sortzea aurreikusten badu.

n) Jarduera nagusiaren helbidea: Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emateko inprimakiaren 24 laukian (840 inprimakia) eta zentsu-aitorpenaren inprimakiaren 141-150 laukietan (036 inprimakia) ageri dena.”

b) Aldatzen da 5. Artikulua, bukaeran ondorengoa eransten delarik:

“Aurreko deialdian laguntza lerro beraren onuradun izan diren pertsonak eta/edo erakundeak ezin izango dituzte laguntza horiek eskatu.”

c) Aldatzen da 6. Artikulua, bukaeran ondorengoa eransten delarik:

a. “Era berean, Andoingo Udalak, eskura dituen datuen bidez, honako datu hauek egiaztatuko ditu:

i. Kontratutako pertsona Andoainen erroldatuta egotea (errolda eta data).

ii. Andoingo Udalarekiko zerga-betebeharren ordainketan egunean egotearen egoera.

iii. Jarduera hasteko lizentziei eta alde zuzeneko jakinarazpenei buruz indarrean dagoen araudia betetzea.

Zerbitzuak eta/edo produktuak komunikatzeko erabili beharreko hizkuntzan eta zerbitzua eskainiko den hizkuntzan, gutxienez, Euskara dagoela egiaztatzen duen agiria.”

d) Aldatzen da partzialki 9. Artikulua, horrela geratzen delarik:

“2. Azken likidazioa (emandako laguntzaren gainerako %40) onuradunak ordenantzaren helburua bete duela eta dirulaguntza-lerro bakoitzean ezarritako iraupen-denbora bete duela egiaztatu ondoren egingo da:

i. 1. Lerroa: Andoingo udalerriko auzoko langabeak kontratatze laguntzak: diruz lagundutako kontratuaren hasierako datatik 6 hilabete igaro ondoren, eta azken justifikazioa aurkeztu ondoren.

ii. 2. Lerroa: Negozio berriak sortzeko, enplegua sortzen duten enpresa-ekimen berriak bultzatzeko eta Andoingo negozioen eskualdaketa edo jarraipena bultzatzeko laguntzak: 6 hilabete igaro ondoren, enpresari alta eman zaionetik (jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emandako eguna edo, hala badagokio, errolda-aitorpenean alta emandako eguna) eta azken justifikazioa aurkeztu ondoren.

iii. 3. Lerroa: Andoingo hutsik dauden zero kotako merkataritza-lokalak (kale-oina) berreskuratzeko eta Martin Ugalde Kultur Parkeko coworking espazioan lanpostuak okupatzeko laguntzak: hasierako dirulaguntza eman zenetik 12 hilabete igaro ondoren eta azken justifikazioa aurkeztu ondoren.

iv. 4. Lerroa: Andoingo profesionalen, negozioen eta enpresen eguneratze digitalerako eta trantsizio ekologiko, jasangarri eta bidezkoa sustatzeko laguntzak: hasierako dirulaguntza emateko aldeko ebazpena jakinarazi eta 2 hilabete igaro ondoren, eta azken justifikazioa aurkeztu ondoren.

v. 5. Lerroa: Andoingo merkataritza-establezimenduak modernizatze laguntzak, irisgarritasuna



hobetuz: hasierako dirulaguntza emateko aldeko ebazpena jakinarazi eta 2 hilabete igaro ondoren, eta azken justifikazioa aurkeztu ondoren.”

e) Aldatzen da partzialki 11. Artikulua, parrafo berri bat erantsiz, eta horrela geratzen delarik:

“Eskatzaileak kontuan hartu beharko du beste erakunde batzuek diruz lagundu beharreko dirulaguntzen bateragarritasuna laguntza hauek eskatzerakoan.”

f) 2. Kapituluari, 1. Lerroa, 2. Puntua partzialki aldatzen da, horrela geratzen delarik:

“Pertsona fisikoak, juridikoak, sozietate zibilak eta ondasun-erkidegoak izango dira laguntzen onuradunak, baldin eta DLoren 13.2 artikuluan ezarritako debekuetako bat ere betetzen ez badute eta, gainera, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

g) Enpresa-jarduerak Gipuzkoan izan beharko du zerga-egoitza, helbide soziala eta jarduera nagusiarena.

h) Jarduerak indarrean dagoen araudiarekin bat etorri beharko du, lizentziei, udal jarduerari ekin aurreko jakinarazpeni eta jardueraren lanbide jarduerari eragin diezaioketen bestelako alderdiei dagokienez.

i) Egunean izan beharko dituzte Andoingo Udalarekiko, Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak.

j) Alta emanda egon beharko dute EJZan, eta ordainduta eduki beharko dituzte zerga horren ordainketak, enpresak hari lotutako jarduerak egiten dituenean. Ordaintzetik salbuetsita egonez gero, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatu beharko da.

k) Ez da diruz lagunduko enpresa berak langile bera kontratatzen bada (hau da, aurreko deialdietan diruz lagundu bada enpresa jakin batek langile jakin hori kontratatu izana).

l) Aldi baterako laneko enpresek ez dute jasoko dirulaguntzarik.

m) Kontratazioak edo kontratazioek enplegu-sorrera garbia ekarri behar dute berekin, kontratatutako pertsonak lanean hasi aurreko 3 hilabeteetan enpresan dagoen batez besteko plantilla osoaren gainean (eranskinean onartutako ziertagiriaren zerrenda).

n) Eskatzen zaien beste edozein.”

o) 2. Kapituluari, 1. Lerroa, 4. Puntua a) partzialki aldatzen da, horrela geratzen delarik:

“a) Laguntza-deialdiaren aurreko urteko azaroaren 1etik deialdiaren urteko urriaren 30era bitartean egindako kontratazioek jaso ahal izango dute programa hau.”

p) 2. Kapituluari, 1. Lerroa, 5. Puntua partzialki aldatzen da, horrela geratzen delarik:

“Interesdunek eskabidea aurkezteak oinarri hauen edukia onartzea ekarriko du.

Laguntza hauek jaso nahi dituzten enpresek edo erakundeek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte hasieran:

q) Eskabide-inprimakia, egoitza elektronikoaren bidez beteko dena (E105 formularioa), eta, besteak beste, datu hauek jasoko dituen:

- Eskatzailearen baimena, oinarri hauetako eskakizunekin zerikusia duten datuak egiaztatzeko.
- Zinpeko aitorpena
- Hirugarren interesdunaren banku-datuei alta emateko fitxa, dagokion banku-erakundeak zigilatuta (II. eranskina).

- Egindako kontratazioari buruzko datuak (III. eranskina)
- Inbertsioari eta egin beharreko gastuei buruzko azalpen-memoria (IV. eranskina)

b) Eskatzailearen nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak:

- Pertsona fisikoak: NAN edo agiri baliokidea.
- Pertsona juridikoak: erakundearen eraketa eta estatutuak jasotzen dituen eskritura edo dokumentua, Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistroan behar bezala inskribatuta.
- Sozietate zibilak: sozietate zibila eratzeko kontratua, IFZ eta sozietate zibila osatzen duten pertsona guztien NANA edo agiri baliokidea.

c) Legezko ordezkariaren kasuan: legezko ordezkariaren NANA edo agiri baliokidea eta ordezkariaren agiri bidezko egiaztapena. Egiaztapena zuzenbidean, notario-ahalordeetan, eskrituretan eta abarretan baliozkoa den edozein bide erabiliz egin ahal izango da (ereduak eranskinetan).



- d) Egindako lan-kontratuaren kopia, iraupena eta lanaldia jasotzen dituen.
- e) Kontratuari lotutako pertsonaren NAN/AIZ agiriaren kopia.
- f) Kontratuaren xede den pertsonaren lan-bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzak emana (eranskinetan onartutako ziurtagirien zerrenda).
- g) Kontratutako pertsonaren inskripzio-aldien ziurtagiria, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emana, langabezian dagoen enplegu-eskatzaila bada, DSBEa jasotzen badu edo, langabetua bada, iraupen luzekoa (eranskinetan onartutako ziurtagirien zerrenda).
- h) Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillari buruzko enpresaren lan-bizitzari buruzko txostenak, Gizarte Segurantzak emandakoak, kontratatutako pertsonak lanean hasi aurreko 3 hilabeteetan enpleguari eutsi zaiola egiaztatzen dutenak. Horretarako, bi txosten aurkeztuko dira. Lehenengoa, kontratatutako pertsonak lanean hasi baino 3 hilabete lehenagokoa, eta bigarrena, pertsona horiek sartu ondoren (eranskinetan onartutako ziurtagirien zerrenda).”
- r) 2. Kapituluan, 1. Lerroa, 6. Puntua partzialki aldatzen da, horrela geratzen delarik: “Itzuli beharrik gabeko laguntza hauek ezarri dira:

Mota	Iraupena	Jardunaldi a (%)	Kolektiboa	Zenbatekoa
A1	Mugagabea	100	Langabea, oro har	3.000 €
B1	Mugagabea	50	Langabea, oro har	1.500 €

3.000 €-ko gehieneko laguntza lanaldi osoko langabeak iraupen mugagabeko kontratuarekin eta gutxienez 6 hilabetez kontratatzeagatik (A1).

2.- 1.500 €-ko gehieneko laguntza, langabeak lanaldi partzialeko (gutxienez % 50ekoa) iraupen mugagabeko kontratuarekin kontratatzeagatik, gutxienez 6 hilabeterako (B1).

Zenbateko horiei zenbateko hauek gehituko zaizkie, kontratatutako pertsonen eta enpresa kontratatzailearen ezaugarrien arabera:

- Pertsonen dagokienez:
  - Kontratutako pertsona emakumea izatea: diruz lagun daitekeen gastuaren % 3tik beherako zenbatekoa, edo 100 €lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, edo 150 €lanaldi osoko kontratuen kasuan.
  - Kontratutako pertsona iraupen luzeko langabea izatea eta/edo DSBEa jaso izana kontratua formalizatu aurretik: zenbateko txikiena diruz lagundu daitekeen gastuaren % 3, edo 100 €lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, edo 150 €lanaldi osoko kontratuen kasuan.
  - Kontratutako pertsona 45 urtekoa edo hortik gorakoa izatea: diruz lagun daitekeen gastuaren % 3 baino txikiagoa bada, edo 100 €baino txikiagoa lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, edo 150 €baino txikiagoa lanaldi osoko kontratuen kasuan.
- Enpresari edo negozioari dagokionez:
  - Enpresa kontratatzaileak jardueraren helbidea Andoainen izatea: zenbateko txikiena diruz lagun daitekeen gastuaren % 3, edo 100 €lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, edo 150 €lanaldi osoko kontratuen kasuan.
  - Kontratuz duen enpresak egiaztatzea euskara, gutxienez, zerbitzuak eta/edo produktuak jakinarazteko erabiliko den hizkuntzan dagoela, bai eta zerbitzua eskainiko den hizkuntzan ere: diruz lagundu daitekeen gastuaren % 3tik beherako zenbatekoa, edo 100 €lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, edo 150 €lanaldi osoko kontratuen kasuan. Egiaztatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:
    - negozioak Andoingo Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzak eskatu eta jaso izana Andoainen euskara sustatzeko jardueretarako deialdi irekietan.
    - negozioak Eusko Jaurlaritzaren EUSKARAZ BARRA-BARRA ekimenean parte hartzea, gure





udalerrian Andoingo Udaleko Euskara Sailak koordinatuta.

- negozioak hori egiaztatzen duen ziurtagiri ofizialen bat izatea (Bikain, Bai Euskarari, Harrobi eta beste batzuk).

- Erakunde eskatzailea mikroenpresa gisa sailkatzea (deskribapena 3. artikuluko c) letran): diruz lagun daitekeen gastuaren % 3tik beherako zenbatekoa, edo 100 €lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, edo 150 €lanaldi osoko kontratuen kasuan.

Gehikuntza horiek metagarriak izango dira, baina gehieneko dirulaguntza ez da 3.900 €-tik gorakoa izango lanaldi osoko kontratazioetan, eta 2.100 €-tik gorakoa lanaldi partzialeko kontratazioetan. Bi kasuetan, enpresak jasoko duen laguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen % 75, kontzeptu guztiengatik Gizarte Segurantzako kotizazioa barne, enpresa kontratatzailearen kontura.

Erakunde eskatzaile bakoitzak gehienez 2 kontrataziorako laguntzak eskatu ahal izango ditu.

Erabilgarri dagoen kreditua agortu arte emango dira laguntzak, dagokion ekitaldirako udal-aurrekontuaren arabera. Dirulaguntza emateko, gerora justifikatu egin beharko da, eta aurrekontu-mugak bete beharko dira.

Eman beharreko dirulaguntzen zenbatekoa eta, hala badagokio, aurreikusitako gehikuntza metagarrien baldintzak aldatu ahal izango dira laguntza horien urteko deialdietan.”

s) 2. Kapituluan, 1. Lerroa, 8. Puntua partzialki aldatzen da, horrela geratzen delarik:

“Enpresa onuradunek laguntzaren xede den kontratazioaren azken justifikazioa aurkeztuko dute, gehienez ere 2 hilabeteko epean, kontratazioa egiten denetik 6 hilabete betetzen diren egunetik zenbatzen hasita, eta, betiere, laguntzen deialdiaren hurrengo urteko apirilaren 30a baino lehen.

Langabeak kontratatuzeko laguntzen ordainketa bi ordainketatan egingo da. Lehenengo ordainketa laguntza ebatzen den momentutik egingo da, eta emandako laguntzaren % 60 izango da gehienez. Bigarren ordainketa, diruz lagundutako kontratuaren hasierako datatik 6 hilabete igaro ondoren eta azken justifikazioa aurkeztu ondoren egingo da.

Justifikatzeko eta ondoren ordaintzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Dirulaguntza justifikatzeko inprimakia. Inprimaki hori egoitza elektronikoen bidez beteko da (E106 inprimakia), eta, besteak beste, datu hauek jasoko ditu:

- Helburu bererako erakunde pribatu edo publikoei orain arte eskatutako eta/edo jasotako gainerako laguntzen erantzukizunpeko adierazpena.

- Egindako kontratazioaren benetako kostua jasotzen duen zinpeko aitortpena, soldatiko, gizarte-segurantzako eta kalte-ordaineko gastuak bereizita.

b) Dirulaguntzaren xede diren gastuak egiaztatzen dituzten agiriak eta egindako ordainketen egiaztagiria, bi kasuetan eskabidea egiten den unean aurkeztu ez badira:

- Kontratutako pertsonaren ordaindutako nominen eta RNT eta RLCen kopia.

- Diruz lagundutako kontratuko soldata laguntzaren aldi ordaindu izanaren banku-egiaztagiria.

c) Kontratutako pertsonaren lan-bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzak emana, laguntza eskatzen den aldi eta lanaldian enpresan egon dela egiaztatzen duena (eranskinetan onartutako ziurtagirien zerrenda).

d) Kontratutako pertsonaren kotizazio-datuei buruzko txostena, Gizarte Segurantzak emana, diruz lagundutako kontratua mantentzen dela egiaztatzen duena, kontratazioa egin eta 6 hilabeteko aldirako (eranskinetan onartutako ziurtagirien zerrenda).

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da, eta eskabidea aurkezteko erabili zen bide bera baliatuko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak.

Andoingo Udalak zuzenean lortuko du, ziurtagiri telematikoen bidez, Gipuzkoako Foru Ogasunak emandako zerga betebeharrak beteta edukitzearen egiaztagiria (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Bilketa), bai eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren historikoa ere (altak, bajak, aldaketak, jarduera epigrafeak), Gipuzkoako Foru Ogasunak emana.

Eskatzaileak edo erakundeak berariaz egin ahal izango du Andoingo Udalak datu horiek kontsultatzearen aurka, eta justifikatu egin beharko ditu horretarako arrazoiak, Datuak Babesteko



2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua dioenari jarraikiz; hala eginez gero, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzen diren unean entitateek ez badituzte egunean Udal Zerga Bilketak, Foru Ogasunak eta/edo Gizarte Segurantzak eskatutako ordainketak, egiaztatu egin beharko dute horiek betetzen dituztela.

Era berean, Andoingo Udalak eskatu ahal izango du eskabidea baloratzeko eta ebazteko beharrezkotzat jotzen duen beste zernahi dokumentazio aurkezteko.”

t) 2. Kapituluaren, 2. Lerroa, 2. Puntua partzialki aldatzen da, a), c), d), i) atalak horrela geratzen direlarik:

“a) Enpresa-jarduerak Andoainen izan beharko du jarduera nagusiaren helbidea.

c) Bideragarritasun plan bat edo jarduera memoria edo proiektu bat izatea, enpresa ekimen berriei laguntzeko udal zerbitzuak baliozkotua (erreferentzia gisa, ikusi oinarri orokorretako 3. Artikulua, “definizioak”, eredia eranskinetan).

d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan eta Langile Autonomoen Araubide Berezien alta emanda egotea, edo, norberaren konturako langile gisa, Gizarte Segurantzaren, edo nahitaezko mutualitate profesionalan, deialdi hau argitaratu aurreko urteko azaroaren 1etik dirulaguntza eskatu arteko aldi.

i) Barne-ekintzaitzaren kasuan (oinarri orokorretako 3. artikulua, "definizioak"), sortutako jarduera ekonomiko berriak aurrekoa ez bezalakoa izan behar du, betiere aurreko jarduera ekonomikoari eutsiz, eta gutxienez enplegu garbia sortzea ekarriko duen zuzeneko lanpostu bat sortzea jaso beharko du.”

u) 2. Kapituluaren, 2. Lerroa, 6. Puntua partzialki aldatzen da, horrela geratzen delarik:

“Diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren ezaugarriei argi eta garbi erantzuten dietenak eta oinarriotan ezarritako baldintzei jarraikiz gauzatzen direnak. Diruz lagundutako gastuen eskuratze kostuak ez du gaitutuko inola ere merkatuko balioa.

Diruz laguntzeko moduko gastuei aplikatzeko izango zaie Dirulaguntzen Lege Orokorreko 31. artikuluan berariaz zehaztutakoa.

On Enpresa berriak sortzeko laguntzen ordainketa bi ordainketatan egingo da. Lehenengo ordainketa laguntza ebatzen den egunean egingo da, eta emandako laguntzaren % 60 izango da gehienez. Bigarren ordainketa enpresak alta eman eta 6 hilabetera egingo da (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren data, edo zentsu-aitorpenaren alta-data, hala badagokio), azken justifikazioa aurkeztu ondoren. Justifikatutako gainerako zenbatekoa ordainduko da, emandako laguntzaren gehienekora arte. Ordainketa hori egiteko, enpresak jardunean jarraitu beharko du lehenengo 6 hilabeteetan.

Azken justifikazioa aurkezteko gehieneko epea 2 hilabetea izango da, enpresaren alta-datatik (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emandako eguna edo errolda-aitorpenaren alta emandako eguna) 6 hilabete igaro ondoren, eta betiere deialdiaren ondorengo urteko ekainaren 30a baino lehen.

Onuradunak honako dokumentazio hau aurkeztu behar du laguntza justifikatzeko eta ordaintzeko:

a) Dirulaguntza justifikatzeko inprimakia. Inprimaki hori egoitza elektronikoaren bidez beteko da (E106 inprimakia), eta, besteak beste, datu hauek jasoko ditu:

- Helburu bererako erakunde pribatu edo publikoei orain arte eskatutako eta/edo jasotako gainerako laguntzen erantzukizunpeko adierazpena.

- Gastuekin batera doan memoria ekonomikoa eta ordainagiriak.

b) Dirulaguntzaren xede diren gastuen egiaztagiria eta egindako ordainketen egiaztagiria, bi kasuetan, eskabidea egiten den unean aurkeztu ez badira.

c) Laguntza jaso nahi duten sustatzaileen lan-bizitzaren txostena, Gizarte Segurantzak emana, laguntza eskatzen den aldiaren eta lanaldian enpresan egon direla egiaztatzen duena (eranskinetan onartutako ziurtagirien zerrenda).

d) Enpresaren lan-bizitzari buruzko txostena, alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillari buruzkoa, Gizarte Segurantzak emana, enpleguari eusten diola egiaztatzen duena, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman zenetik sei hilabete igaro ondoren, edo errolda-aitorpenaren alta eman zaion eguna igaro ondoren. Horretarako, bi txosten aurkeztuko dira. Lehenengoa, enpresa EJZn alta eman ondoren, eta bigarrena, alta horretatik sei hilabete igaro ondoren (eranskinetan onartutako ziurtagirien



zerrenda).

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da, eta eskabidea aurkezteko erabili zen bide bera baliatuko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak.

Andoingo Udalak zuzenean lortuko du, ziurtagiri telematikoen bidez, Gipuzkoako Foru Ogasunak emandako zerga betebeharrak beteta edukitzearen egiaztatzea (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Bilketa), bai eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren historikoa ere (altak, bajak, aldaketak, jarduera epigrafeak), Gipuzkoako Foru Ogasunak emana.

Eskatzaileak edo erakundeak berariaz egin ahal izango du Andoingo Udalak datu horiek kontsultatzaren aurka, eta justifikatu egin beharko ditu horretarako arrazoiak, Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua dioenari jarraikiz; hala eginez gero, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzen diren unean entitateek ez badituzte egunean Udal Zerga Bilketak, Foru Ogasunak eta/edo Gizarte Segurantzak eskatutako ordainketak, egiaztatu egin beharko dute horiek betetzen dituztela.

Era berean, Andoingo Udalak eskatu ahal izango du eskabidea baloratzeko eta ebazteko beharrezkotzat jotzen duen beste zernahi dokumentazio aurkezteko.”

v) 2. Kapituluaren, 3. Lerroa, 1. Puntua partzialki aldatzen da, a) atala horrela geratzen delarik:

“a) Andoainen hutsik dauden merkataritza-lokalen alokairua sustatzea zero kotan (kale-oinean), industrialdeetan daudenak izan ezik.”

i. 2. Kapituluaren, 3. Lerroa, 2. Puntua partzialki aldatzen da, a), c), g), h), j) atalak horrela geratzen direlarik:

“a) Enpresa-jarduerak Andoainen izan beharko du jarduera nagusiaren helbidea.

c) Proiektu sortu berrien kasuan, bideragarritasun plan bat edo jarduera memoria edo proiektu bat izatea, enpresa ekimen berriei laguntzeko udal zerbitzuak baliozkotua. (oinarri orokorretako 3. artikulua erreferentzia: "definizioak", eredia eranskinean).

g) Dirulaguntza lerro hau argitaratu aurreko 12 hilabeteetan Andoainen jarduera berarekin edo antzekoarekin edo EJZ kodearekin beste negozio baten jabe edo bazkiderik ez izatea. Dirulaguntza horietatik kanpo geratzen dira udalerrri barruko negozio-lekualdaketak.

h) Alokairu-kontratu bat sinatzea ekintzailearen eta lokalaren jabearen artean, gutxienez 12 hilabeteko iraupenekoa, eta formalizatu izana deialdi hau argitaratu aurreko urteko azaroaren 1etik dirulaguntza eskatu arteko epean. Andoingo Udalak ez du parte hartuko alokairu-kontratuaren formalizazioan.

j) Bizitegi-erabilerarako ez den alokairu-kontratu bat sinatzea (lanpostu edo bulegoaren alokairua) ekintzailearen eta Martin Ugalde Kultur Parkearen legezko ordezkariaren artean, gutxienez 12 hilabeteko iraupenarekin, eta deialdi hau argitaratu aurreko urteko azaroaren 1etik dirulaguntza eskatu den egunera bitartean formalizatu izana. Andoingo Udalak ez du parte hartuko kontratu horren formalizazioan.”

w) 2. Kapituluaren, 3. Lerroa, 3. Puntua a), e), f), g) partzialki aldatzen dira, eta h) i) atalak eransten dira, horrela geratzen delarik:

“a) Eskabide-inprimakia, egoitza elektronikoen bidez beteko dena (E105 formularioa), eta, besteak beste, datu hauek jasoko dituenak:

- Eskatzailearen baimena, oinarri hauetako eskakizunekin zerikusia duten datuak egiaztatuzko.

- Zinpeko aitorpena

- Hirugarren interesdunaren banku-datuei alta emateko fitxa, dagozkion banku-erakundeak zigilatuta (II. eranskina).

- Inbertsioari eta egin beharreko gastuei buruzko azalpen-memoria (IV. eranskina)

e) Proiektu berrien kasuan: bideragarritasun-plana, Andoingo ekintzailetzari laguntzeko bulegoak positiboki ebaluatu beharko duena (eredua eranskinean dago).

f) Alta emandako jardueraren 840 ereduaren eta 036 Zentsu-aitorpenaren kopia.

g) Alokairu-kontratuaren kopia, hileko ordainagiriaren eta egindako ordainagiriaren kopia, eta, hala badagokio, egin beharreko gastuei buruzko azalpen memoria.



h) Jarduera berria sartutako pertsonaren inskripzio-aldien ziurtagiria, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emana, langabezian dagoen enplegu-eskatzaila bada (eranskinetan onartutako ziurtagirien zerrenda).

i) Kontratuaren xede den pertsonaren lan-bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzak emana (eranskinetan onartutako ziurtagirien zerrenda).”

x) 2. Kapituluaren, 3. Lerroa, 4. Puntua partzialki aldatzen da, horrela geratzen delarik:

“Diruz lagundu ahal izango dira Martin Ugalde Kultur Parkeko coworking-ean lokal baten eta/edo lanpostu baten alokairuak eragindako gastuak, kontratua formalizatu eta hurrengo 12 hilabeteetan egiten badira eta haren existentziaren (faktura) eta ordainketaren dokumentazio frogagarria badago. Beraz, diruz lagunduko dira deialdiaren aurreko urteko azaroaren 1etik hurrengo urteko urriaren 30era arteko gastuak.

Dirulaguntzaren xede den zero kotako merkataritza-lokalen kasuan, lehenengo urteko alokairu-kostuaren % 50eko dirulaguntza emango da, hilean 400 €-ko oinarritzko dirulaguntzarekin (edo, 12 hilekotan, 4.800 €-ko dirulaguntza). Zenbateko horri kopuru hauek gehituko zaizkio jardueraren ezaugarrien arabera:

- Erakunde eskatzailak egiaztatzea euskara, gutxienez, zerbitzuak eta/edo produktuak jakinarazteko erabili beharreko hizkuntzan dagoela, bai eta zerbitzua eskainiko den hizkuntzan ere: diruz lagundu daitekeen gastuaren % 3 edo 150 €-tik beherako zenbatekoa. Egiaztatzeke, honako hauek hartuko dira kontuan:

- negozioak Andoingo Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzak eskatu eta jaso izana Andoainen euskara sustatzeko jardueretarako deialdi irekietan.

- negozioak Eusko Jaurlaritzaren EUSKARAZ BARRA-BARRA ekimenean parte hartzea, gure udalerrian Andoingo Udaleko Euskara Sailak koordinatuta.

- negozioak hori egiaztatzen duen ziurtagiri ofizialen bat izatea (Bikain, Bai Euskarari, Harrobi eta beste batzuk)

- Establezimendua Salkin\* tokiko merkatarien elkarteko kide izatera edo sustatzera sartzea: diruz lagundu daitekeen gastuaren % 3 edo 150 €-arteke gutxienezko zenbatekoa.

\* (Andoingo Udala eta Andoingo Merkataria eta Ostalarien Elkarte -Salkin- elkarlanean ari dira tokiko merkataritza sustatzeko helburu komunarekin. Laguntzaren ehuneko handituz, Udalak azpimarratu nahi du talde lanak sektorearentzat duen garrantzia eta sektorearen ikuspegi integrala).

Gehikuntza horiek metagarriak izango dira, baina gehieneko dirulaguntza ez da urtean 5.100 €-tik gorakoa izango. Hala ere, laguntzaren gehieneko zenbatekoak ezin izango du inola ere gainditu ordaindu beharreko errenta.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria alokairu-gastuak bakarrik izango dira (BEZa eta gainerako zergak, tasak eta atxikipenak barne hartu gabe). Era berean, ez dira kontuan hartuko lokalaren erabilerarekin lotutako beste gastu batzuk (komunitatearen, uraren, elektrizitatearen eta abarren gastuak).

Martin Ugalde Kultur Parkeko coworking-gunean lanpostuak okupatuz gero, alokairuko lehen urteko kostuaren % 80 lagunduko da diruz. Dirulaguntzaren gehienezko oinarritzko zenbatekoa honako zifra hauen arabera izango da:

- Lanpostu baterako: 93,16 € hilean (edo, 12 hilekotan, 1.118 €)

- Bulego txiki baterako (3-4 pertsona): 186,72 €/ hilean (edo, 12 hilekotan, 2.241 €)

Zenbateko horiei kopuru hauek gehituko zaizkie, jardueraren ezaugarrien arabera:

- Pertsonari dagokionez:

- Sustatzaileen edo bazkideen erdia, gutxienez, emakumeak izatea: diruz lagun daitekeen gastuaren % 1,5etik beherako zenbatekoa, edo 100 €, lanpostuak alokatuz gero, edo 150 €, bulego txikiak alokatuz gero.

- Sustatzaileen edo bazkideen erdiak, gutxienez, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan eta dagokion Gizarte Segurantzako araubidean alta eman aurretik Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lanik gabe eta erregistratuta egon izana: diruz lagundu daitekeen gastuaren % 1,5etik beherako zenbatekoa, edo, lanpostuak alokatuz gero, 100 eurokoa, edo 150 eurokoa bulego txikiak alokatzeko.

- Sustatzaileen edo bazkideen erdiek gutxienez 30 urte baino gutxiago izatea edo 55 urte baino gehiago



izatea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan eta dagokion Gizarte Segurantzako araubidean alta ematen den egunean: diruz lagundu daitekeen gastuaren % 1 baino gutxiago, edo 100 euro baino gutxiago lanpostuak alokatzen direnean, edo 150 euro baino gutxiago bulego txikiak alokatzen direnean.

- Sustatzaileen edo bazkideen erdia, gutxienez, udalerriko bizilagunak izatea (eskaera egin baino 3 hilabete lehenago erroldatuak udalerrian): diruz lagundu daitekeen gastuaren % 1,5etik beherako zenbatekoa, edo 100 €, lanpostuak alokatzen direnean, edo 150 €bulego txikiak alokatzeko.

- Enpresari dagokionez: Pertsona fisiko, sozietate zibil edo, pertsona juridikoaren kasuan, ekonomia sozial eta solidarioko (kooperatibak edo lanekoak) pertsona gisa eratu izana: diruz lagundu daitekeen gastuaren % 1,5 edo 100 €arteko zenbatekoa.

Igoera horiek metagarriak izango dira, baina gehieneko dirulaguntza ez da 2.991 €-tik gorakoa izango bulegoko alokairurako eta 1.618 €-tik gorakoa lanpostu bat alokatzeko. Hala ere, laguntzaren gehieneko zenbatekoak ezin izango du inola ere gainditu ordaindu beharreko errenta.

Erabilgarri dagoen kreditua agortu arte emango dira laguntzak, laguntzen deialdiaren ekitaldiko udal-aurrekontuaren arabera. Dirulaguntza emateko, gerora justifikatu egin beharko da, eta aurrekontu-mugak bete beharko dira.”

y) 2. Kapituluan, 3. Lerroa, 6. Puntua partzialki aldatzen da, horrela geratzen delarik:

“Diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren ezaugarriei argi eta garbi erantzuten dietenak eta oinarriotan ezarritako baldintzei jarraikiz gauzatzen direnak. Diruz lagundutako gastuen eskuratzeko kostuak ez du gaindituko inola ere merkatuko balioa.

Diruz laguntzeko moduko gastuei aplikatzekoa izango zaie Dirulaguntzen Lege Orokorreko 31. artikuluan berariaz zehaztutakoa.

Ordainketa bi zatitan egingo da. Lehenengo ordainketa laguntza ebatzen den egunean egingo da, eta emandako laguntzaren % 60 izango da, gehienez. Bigarren ordainketa hasierako dirulaguntza eman eta 12 hilabetera egingo da, azken justifikazioa aurkeztu ondoren. Justifikatutako gainerako zenbatekoa ordainduko da, emandako laguntzaren gehienekora arte.

Azken justifikazioa aurkezteko gehieneko epea hilabete batekoa izango da, alokairuaren dirulaguntzako 12 hilabeteak igaro ondoren, eta, betiere, dagokion urteko azaroaren 30a baino lehen.

Onuradunak dokumentazio hau aurkeztu behar du laguntza justifikatzeko eta ordaintzeko:

a) Dirulaguntza justifikatzeko inprimakia. Inprimaki hori egoitza elektronikoen bidez beteko da (E106 inprimakia), eta, besteak beste, datu hauek jasoko ditu:

- Helburu bererako erakunde pribatu edo publikoei orain arte eskatutako eta/edo jasotako gainerako laguntzen erantzukizunpeko adierazpena.

- Gastuekin batera doan memoria ekonomikoa eta ordainagiriak.

b) Dirulaguntzaren xede diren gastuen egiaztagiria eta egindako ordainketen egiaztagiria, bi kasuetan, eskabidea egiten den unean aurkeztu ez badira.

c) Laguntza jaso nahi duten sustatzaileen lan-bizitzaren txostena, Gizarte Segurantzak emana, laguntza eskatzen den aldian eta lanaldian enpresan egon direla egiaztatzen duena (eranskinetan onartutako ziurtagirien zerrenda).

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da, eta eskabidea aurkezteko erabili zen bide bera baliatuko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak.

Andoingo Udalak zuzenean lortuko du, ziurtagiri telematikoen bidez, Gipuzkoako Foru Ogasunak emandako zerga betebeharrak beteta edukitzearen egiaztagiria (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Bilketa), bai eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren historikoa ere (altak, bajak, aldaketak, jarduera epigrafeak), Gipuzkoako Foru Ogasunak emana.

Eskatzaileak edo erakundeak berariaz egin ahal izango du Andoingo Udalak datu horiek kontsultatzearen aurka, eta justifikatu egin beharko ditu horretarako arrazoiak, Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua dioenari jarraikiz; hala eginez gero, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzen diren unean entitateek ez badituzte egunean Udal Zerga Bilketak, Foru Ogasunak eta/edo Gizarte Segurantzak eskatutako ordainketak, egiaztatu egin beharko



dute horiek betetzen dituztela.”

z) 2. Kapituluan, 4. Lerroa, 2. Puntua partzialki aldatzen da, a), d) atalak horrela geratzen direlarik:

“a) Enpresa-jarduerak Andoainen izan beharko du jarduera nagusiaren helbidea.

d) Laguntza hauen xede den inbertsioa egiten denetik dirulaguntzaren eskaera egin arte urtebete baino gutxiago igarotzea, betiere, laguntzen deialdiari dagokion urteko azaroaren 1etik aurrera egindako inbertsioetarako.”

aa) 2. Kapituluan, 4. Lerroa, 3. Puntua partzialki aldatzen da, horrela geratzen delarik:

“Pertsonak eta/edo erakundeek eskabidea aurkezteak oinarri hauen edukiak onartzea ekarriko du.

Laguntza hauek jaso nahi dituzten pertsonak eta/edo enpresek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte hasieran:

a) Eskabide-inprimakia, egoitza elektronikoen bidez beteko dena (E105 formularioa), eta, bestek beste, datu hauek jasoko dituen:

- Eskatzailearen baimena, oinarri hauetako eskakizunekin zerikusia duten datuak egiaztatzeko.

- Zinpeko aitortpena

- Hirugarren interesdunaren banku-datuei alta emateko fitxa, dagokion banku-erakundeak zigilatuta (II. eranskina).

- Inbertsioari eta egin beharreko gastuei buruzko azalpen-memoria (IV. eranskina)

b) Eskatzailearen nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak:

- Pertsona fisikoak: NAN edo agiri baliokidea.

- Pertsona juridikoak: erakundearen eraketa eta estatutuak jasotzen dituen eskritura edo dokumentua, Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistroan behar bezala inskribatuta.

- Sozietate zibilak: sozietate zibila eratzeko kontratua, IFZ eta sozietate zibila osatzen duten pertsona guztien NANA edo agiri baliokidea.

c) Legezko ordezkariaren kasuan: legezko ordezkariaren NANA edo agiri baliokidea eta ordezkariaren agiri bidezko egiaztapena. Egiaztapena zuzenbidean, notario-ahalordeetan, eskrituretan eta abarretan baliozkoa den edozein bide erabiliz egin ahal izango da (ereduak eranskinetan).

d) Egungo eta itxitako azken ekitaldiko emaitzen kontua, kontabilitate-plan orokorraren arabera egina (eredua eranskinetan)

e) Diruz lagun daitezkeen gastuen fakturak eta ordainagiriak.

f) Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillari buruzko enpresaren lan-bizitzari buruzko txostenak, Gizarte Segurantzak emandakoak, laguntza eskatu aurreko urtean enpleguari eutsi zaiola egiaztatzen dutenak. Horretarako, bi txosten aurkeztuko dira. Lehenengoa, laguntza-eskaera egin aurreko 12 hilabetekoa, eta bigarrena, eskabidea egin ondoren (eranskinetan onartutako ziurtagirien zerrenda).”

bb) 2. Kapituluan, 4. Lerroa, 4. Puntua partzialki aldatzen da, horrela geratzen delarik:

“Trantsizio digitaleko eta energetikoko prozesuak bultzatzeko beharrezkoak diren gastuak eta inbertsioak diruz lagundu ahal izango dira, baldin eta haien existentziaren (faktura) eta ordainketaren dokumentazio frogagarria badago. Deialdiaren aurreko urteko azaroaren 1etik dirulaguntzaren eskabidea aurkezten den egunera artekoak izango dira (deialdiaren urteko urriaren 30a, gehienez).

Diruz lagundu daitezkeen gastuen zerrenda:

a) Trantsizio digitalerako inbertsioak eta gastuak, zehazki:

cc) Enpresaren edo negozioaren kudeaketa hobetzeko programa informatikoak inplementatzea: aplikazio informatikoen lizentziak eta/edo ERP, stocka kudeatzeko, bezeroekiko harremanetarako, hornitzaileekiko harremanetarako eta negozioaren beste arlo batzuk kudeatzeko.

dd) Negozioaren irudi digitala sortzea, garatzea, berritzea eta hobetzea. Webgune edo app bat sortu, garatu eta/edo hobetzea, marketplace batean parte hartzea bideratutako inbertsioak eta SEO, SEM eta marketin digitaleko estrategien bidez (online publizitate-kanpainak, eduki digitala sortzea, etab.) Interneten presentzia hobetzera bideratutako inbertsioak. Andoingo Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza-lerroari lotutako inbertsio eta gastuetarako dirulaguntza eskatzen bada (Andoingo euskara sustatzeko jardueretarako laguntza ekonomikoak arautzen dituen ordenantza, 2023/04/11ko GAO), laguntza horiei dagokien zenbatekoa ez da diruz lagundu daitezkeen gastuzat hartuko lerro honetako



laguntza-eskaeran.

ee) Datuak aztertzeko programa informatikoak inplementatzea, bezeroen, lehiakideen, merkatuaren eta/edo enpresaren ezagutza sakonagoa lortzeko eta negozioaren barruan datuetan oinarritutako erabakiak sustatzeko.

ff) Programa informatikoak inplementatzea negozioaren zibersegurtasuna bermatzeko eta hobetzeko.

gg) Digitalizazioari lotutako aholkularitza-zerbitzu bat kontratatzea, negozioaren behar espezifikoari lotutako digitalizazio-plangintza estrategiko bat sortzeko.

hh) Aurrez aipatutako digitalizazio-arloei buruzko ezagutzak eskuratzea edo hobetzea ahalbidetzen duten prestakuntza- eta trebakuntza-ekintzak.b) Trantsizio ekologikorako inbertsioak eta gastuak, zehazki:

ii) Energia efizientzia, klimatizazio eraginkorra eta eguzki kontroleko elementuak hobetzea: klimatizazio eta aireztapen instalazioen eraginkortasuna hobetzea (presentzia detektagailuak, termostatoen instalazioa, aerotermia, eta abar); eta eguzki kontroleko elementuak, hala nola eguzki oihalak edo eguzkia kontrolatzeko plakak.

jj) Kontsumo txikiko argiztapena: LED teknologia eta harekin lotutako kontrol elementuak erabiltzen dituzten beste batzuk ipintzea. LED argiek efizientzia handiko etiketa energetikoa izan beharko dute (A+, A++ eta A+++), edo A, B, C).

kk) Makinak erosi, instalatu eta muntatu (labe elektrikoak, hozkailu-ganberak barne), betiere, energia-eraginkortasun handiko etiketa badute (A, B, C).

ll) Energia komunitateetan edo energia berriztagarriko kooperatibetan parte hartzea.

mm) Banaketa jasangarriko ibilgailuak erostea edo gehienez 6 hilabetez alokatzea.

nn) Hondakinen sorrera murriztea (esaterako, packaginga material birziklatuekin edo birziklagarriekin berritzea).

oo) Energia auditoretzak edo hondakinak murrizteko aholkularitza espezializatua kontratatzea.

Ez dira kontuan hartuko 100 euro baino gutxiagoko gastua frogatzen duten fakturak eta agiriak, zergak kenduta. Kreditu edo zordunketa txartelarekin, banku transferentziarekin edo helbideratzeagatiko ordainagiriarekin egindako ordainketak bakarrik onartuko dira. Ez da onartuko eskudirutan eginiko ordainketarik, ez eta Bizum edo merkatuan ager daitekeen antzeko tresna/aplikazioaren bidezkorik ere.

Ez dira hartuko inola ere laguntzaren xede den enpresa proiektua abian jartzeko eta funtzionatzeko inbertsioei lotutako gastutzat honako hauek:

pp) Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta zeharkako gainerako zergak.

qq) Leasing kontratuen finantzaketa.

Dirulaguntza diruz lagundu daitezkeen gastuen %80koa izango da, 1.250,00 euroko oinarritzko zenbatekoarekin. Zenbateko horri taulan agertzen diren kopuruak gehituko zaizkio, sustatzaileen eta/edo proiektuaren ezaugarrien arabera:

- Enpresari edo negozioari dagokionez:

- Erakunde eskatzaileak egiaztatzea euskara, gutxienez, zerbitzuak eta/edo produktuak jakinarazteko erabiliko den hizkuntzan dagoela, bai eta zerbitzua eskainiko den hizkuntzan ere: diruz lagun daitezkeen gastuaren % 1,5 edo 100 euro arteko zenbatekoa. Egiaztatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:

- negozioak Andoingo Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzak eskatu eta jaso izana Andoainen euskara sustatzeko jardueretarako deialdi irekietan.

- negozioak Eusko Jaurlaritzaren EUSKARAZ BARRA-BARRA ekimenean parte hartzea, gure udalerrian Andoingo Udaleko Euskara Sailak koordinatuta.

- negozioak hori egiaztatzen duen ziurtagiri ofizialen bat izatea (Bikain, Bai Euskarari, Harrobi eta beste batzuk).

rr) Pertsona fisiko, sozietate zibil edo pertsona juridiko gisa eratu izana, ekonomia sozial eta solidarioko gisa (kooperatibak edo lanekoak): diruz lagundu daitezkeen gastuaren % 1,5 edo 100 €arteko zenbatekoa.



- Erakunde eskatzailea mikroenpresa gisa sailkatzea (deskribapena 3. artikuluko c) letran: diruz lagun daitekeen gastuaren % 1,5 edo 100 €arteko zenbatekoa.
- Jarduera nagusia bat etortzea jarduera hauetako batekin: diruz lagundu daitekeen gastuaren % 1,5 edo 100 €arteko zenbatekoa. Diruz lagundutako EJZren kodeak honako hauek dira:
  - trantsizio digitalaren aldeko inbertsioen kasuan:
  - lehen sektorea (JEZ kodeak: 01-07, 41-42, 91)
  - merkataritza (EJZ kodeak: 64-66)
  - pertsonentzako zerbitzuak (EJZren kodeak: 82-83, 94, 97)
  - turismoa (JEZ kodeak: 67-68)
  - kultura- eta sormen-industria (EJZ kodeak: 96)
  - informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak (EJZ kodea: 845, 847)
  - trantsizio ekologikoaren aldeko inbertsioen kasuan: lehen sektorea, ostalaritza, hotelak, industria eta zerbitzu osagarriak
    - lehen sektorea (JEZ kodeak: 01-07, 41-42, 91)
    - hotel-denda (JEZ kodeak: 68)
    - ostalaritza (JEZ kodeak: 67)
    - industria eta zerbitzu osagarriak (EJZren kodeak: 22, 24, 25, 31-39, 41-49)
- Erakunde homologatuek digitalizazio-diagnostikoa edo energia-auditoretza egin izana diruz lagundutako inbertsioak egin aurretik: +%1,25 edo 100 €
- Negozioaren bazkideek edo zuzendaritzako arduradunek parte hartzea Andoingo Udalak eta/edo Beterri Buruntzako Mankomunitateak ezarritako trantsizio digitalen aldeko programetan: + % 1,25 edo 100 €.

Gehikuntza horiek metagarriak izango dira, baina dirulaguntza ez da izango 1.850 €-tik gorakoa, ezta diruz lagundu daitezkeen gastuen % 90etik gorakoa ere.

Laguntzak kreditu erabilgarria agortu arte emango dira, 2023ko ekitaldirako udal aurrekontuarekin bat etorritik. Zenbateko hori emateko, beharrezkoa izango da ondoren justifikatzea, eta dagozkion aurrekontu mugak bete beharko dira.”

ss) 2. Kapituluari, 4. Lerroari, 6. Puntua partzialki aldatzen da, horrela geratzen delarik:

“Diruz laguntzeko moduko gastuzat hartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren ezaugarriak argi eta garbi erantzuten dietenak eta oinarriotan ezarritako baldintzei jarraituz gauzatzen direnak. Diruz lagundutako gastuen eskuratze kostuak ez du gaitutuko inola ere merkatuko balioa.

Diruz laguntzeko moduko gastuei aplikatzekoa izango zaie Dirulaguntzen Lege Orokorreko 31. artikuluan berariaz zehaztutakoa.

Azken justifikazioa aurkezteko gehieneko epea hilabetekoa izango da, hasierako dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik kontatzen hasita, eta, nolana ere, laguntzen deialdiaren ondorengo urteko urtarilaren 31 baino lehen.

Lehenengo ordainketa laguntza ebazten den egunean egingo da, eta emandako laguntzaren % 60raino igoko da. Bigarren ordainketa hasierako dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi eta 2 hilabetera egingo da, eta azken justifikazioa aurkeztu ondoren.

Onuradunak honako dokumentazio hau aurkeztu behar du laguntza justifikatzeko eta ordaintzeko:

a) Dirulaguntza justifikatzeko inprimakia. Inprimaki hori egoitza elektronikoaren bidez beteko da (E106 inprimakia), eta, besteak beste, datu hauek jasoko ditu:

- Helburu bererako erakunde pribatu edo publikoei orain arte eskatutako eta/edo jasotako gainerako laguntzen erantzukizunpeko adierazpena.

- Gastuei erantsitako memoria ekonomikoa eta orriko egiaztagiriak.

b) Dirulaguntzaren xede diren gastuen egiaztagiriak eta egindako ordainketen egiaztagiriak, bi kasuetan, eskabidea egiten den unean aurkeztu ez badira.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da, eta eskabidea aurkezteko erabili zen bide bera baliatuko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak.

Andoingo Udalak zuzenean lortuko du, ziurtagiri telematikoen bidez, Gipuzkoako Foru Ogasunak





emandako zerga betebeharrak beteta edukitzearen egiaztagiria (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Bilketa), bai eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren historikoa ere (altak, bajak, aldaketak, jarduera epigrafeak), Gipuzkoako Foru Ogasunak emana.

Eskatzaileak edo erakundeak berariaz egin ahal izango du Andoingo Udalak datu horiek kontsultatzaren aurka, eta justifikatu egin beharko ditu horretarako arrazoiak, Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua dioenari jarraikiz; hala eginez gero, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzen diren unean entitateek ez badituzte egunean Udal Zerga Bilketak, Foru Ogasunak eta/edo Gizarte Segurantzak eskatutako ordainketak, egiaztatu egin beharko dute horiek betetzen dituztela.”

tt) 2. Kapituluaren, 5. Lerroa, 1. Puntua partzialki aldatzen da, horrela geratzen delarik:

“a) Irisgarritasunari buruzko Legea betez, pertsonen irisgarritasun unibertala (fisikoa, sentsoriala, kognitiboa) errazten duten oztupoak ezabatzea.

uu) Pertsonekin laguntasuna errazteko neurriak, adibidez: erraz irekitzeko moduko atak, heldulekuak, itzaroteko eserlekuak, poltsa eta paketeetarako euskarriak, probaleku eroso eta irisgarriak, letra argi eta handiko kartelak eta antzekoak.”

vv) 2. Kapituluaren, 5. Lerroa, 2. Puntua partzialki aldatzen da, a) e) atalak horrela geratzen direlarik:

“a) Enpresa jarduerak Andoainan izan beharko du jarduera nagusiaren helbidea.

e) Laguntza hauen xede den inbertsioa egiten denetik dirulaguntzaren eskaera egin arte urtebete baino gutxiago igarotzea, betiere laguntzen deialdiari dagokion urteko azaroaren 1etik aurrera egindako inbertsioetarako.”

ww) 2. Kapituluaren, 5. Lerroa, 3. Puntua partzialki aldatzen da, a), c), d) atalak, eta kentzen da e) atala, horrela geratzen delarik:

“a) Eskabide-inprimakia, egoitza elektronikoen bidez beteko dena (E105 formularioa), eta, besteak beste, datu hauek jasoko dituen:

- Eskatzailearen baimena, oinarri hauetako eskakizunekin zerikusia duten datuak egiaztatzeko.
- Zinpeko aitortpena
- Hirugarren interesdunaren banku-datuei alta emateko fitxa, dagokion banku-erakundeak zigilatuta (II. eranskina).

• Inbertsioari eta egin beharreko gastuei buruzko azalpen-memoria (IV. eranskina)

c) Legezko ordezkariaren kasuan: legezko ordezkariaren NANA edo agiri baliokidea eta ordezkariaren agiri bidezko egiaztapena. Egiaztapena zuzenbidean, notario-ahalordeetan, eskriturretan eta abarretan baliozkoa den edozein bide erabiliz egin ahal izango da (ereduak eranskinetan).”

d) Diruz lagun daitezkeen gastuen fakturak eta ordainagiriak.

2. Kapituluaren, 5. Lerroa, 4. Puntua partzialki aldatzen da, horrela geratzen delarik:

“Gastu eta inbertsioak diruz lagundu ahal izango dira, bezeroek erabiltzen dituzten gune eta espazioetara mugatuta daudenak, baldin eta merkataritza-establezimenduen irisgarritasuna eta lagunkotasuna bultzatzeko beharrezkoak badira, eta haien existentziaren (faktura) eta ordainketaren dokumentazio frogagarria badago. Deialdiaren aurreko urteko azaroaren 1etik dirulaguntzaren eskabidea aurkezten den egunera artekoak izango dira (deialdiaren urteko urriaren 30a, gehienez).

Diruz lagundu daitezkeen gastuen zerrenda:

EAEn indarrean dagoen irisgarritasunari buruzko legea betetzetik eratorritako inbertsioak eta gastuak diruz lagundu ahal izango dira, bai eta pertsonetik adiskidetasunetik eratorritakoak ere, besteak beste:

a) Irisgarritasunari buruzko legea betetzeko hobekuntza obra txikiak, pertsonen irisgarritasun unibertala (fisikoa, sentsoriala, kognitiboa) errazteko: sarbideak, ateko baoben edo barruko pasabideen zabalera, arrapalak jartzea, lurzoruaren akabera hobetzea irristadak saihesteko, eta abar. Laguntza hauen IV. lerroari lotutako inbertsio eta gastuetarako dirulaguntza eskatuz gero, laguntza horiei dagokien zenbatekoa ez da hartuko diruz lagun daitezkeen gastutatzerako honetako laguntzaren eskaeran.

b) Altzariak eta ekipamendu irisgarria erostea: itzaroteko eserlekuak, heldulekuak, poltsetarako eta paketeetarako euskarriak, mahaiak, e.a.



c) Barruko kartelak eta material grafikoa berritzea, letra handiz (euskaraz, gaztelaniaz, braillez, eta abar). Andoingo Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza lerroari lotutako inbertsio eta gastuetarako dirulaguntza eskatuz gero (Andoingo euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2023/04/11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala), horiei dagokien zenbatekoa ez da hartuko diruz lagundu daitekeen gastutzat lerro honetako laguntza eskaeran.

Kreditu edo zordunketa txartelarekin, banku transferentziarekin edo helbideratzeagatiko ordainagiriarekin egindako ordainketak bakarrik onartuko dira. Ez da onartuko eskudirutan eginiko ordainketarik, ez eta Bizum edo merkatuan ager daitekeen antzeko tresna/aplikazioaren bidezkorik ere.

Ez dira hartuko inola ere laguntzaren xede den enpresa proiektua abian jartzeko inbertsioei lotutako gastutzat balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta zeharkako gainerako zergak.

Inbertsioaren gutxieneko gastua 100 eurokoa izango da. Ez dira diruz lagunduko gutxieneko horretara iristen ez diren eskabideak. Laguntza bakarra emango da establezimendu bakoitzeko.

Dirulaguntza diruz lagundu daitezkeen gastuen % 80koa izango da, 1.500,00 €-ko mugarekin. Zenbateko horri taulan agertzen diren kopuruak gehituko zaizkio, erakunde eskatzailearen ezaugarrien arabera:

- Erakunde eskatzaileak egiaztatzea euskara, gutxienez, zerbitzuak eta/edo produktuak jakinarazteko erabiliko den hizkuntzan dagoela, bai eta zerbitzua eskainiko den hizkuntzan ere: diruz lagun daitekeen gastuaren % 1,5 edo 100 euro arteko zenbatekoa. Egiaztatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:

- negozioak Andoingo Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzak eskatu eta jaso izana Andoainen euskara sustatzeko jardueretarako deialdi irekietan.

- negozioak Eusko Jaurlaritzaren EUSKARAZ BARRA-BARRA ekimenean parte hartzea, gure udalerrian Andoingo Udaleko Euskara Sailak koordinatuta.

- negozioak hori egiaztatzen duen ziurtagiri ofizialen bat izatea (Bikain, Bai Euskarari, Harrobi eta beste batzuk)

- Pertsona fisiko, sozietate zibil edo pertsona juridiko gisa eratu izana, ekonomia sozial eta solidarioko gisa (kooperatibak edo lanekoak): diruz lagundu daitekeen gastuaren % 1,5 edo 100 €arteko zenbatekoa.”

- 2. Kapituluan, 5. Lerroa, 6. Puntua partzialki aldatzen da, horrela geratzen delarik:

“Diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren ezaugarriei argi eta garbi erantzuten dietenak eta oinarriotan ezarritako baldintzei jarraikiz gauzatzen direnak. Diruz lagundutako gastuen eskuratze kostuak ez du gaundituko inola ere merkatuko balioa.

Diruz laguntzeko moduko gastuei aplikatzekoa izango zaie Dirulaguntzen Lege Orokorreko 31. artikuluan berariaz zehaztutakoa.

Azken justifikazioa aurkezteko gehieneko epea hilabetekoa izango da, hasierako dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik kontatzen hasita, eta, nolana ere, laguntzen deialdiaren ondorengo urteko urtarilaren 31 baino lehen.

Lehenengo ordainketa laguntza ebazten den egunean egingo da, eta emandako laguntzaren % 60raino igoko da. Bigarren ordainketa hasierako dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi eta bi hilabetera egingo da, eta azken justifikazioa aurkeztu ondoren.

Onuradunak honako dokumentazio hau aurkeztu behar du laguntza justifikatzeko eta ordaintzeko:

a) Dirulaguntza justifikatzeko inprimakia. Inprimaki hori egoitza elektronikoaren bidez beteko da (E106 inprimakia), eta, besteak beste, datu hauek jasoko ditu:

- Helburu bererako erakunde pribatu edo publikoei orain arte eskatutako eta/edo jasotako gainerako laguntzen erantzukizunpeko adierazpena.

- Gastuei erantsitako memoria ekonomikoa eta orriko egiaztagiriak.

b) Dirulaguntzaren xede diren gastuen egiaztagiriak eta egindako ordainketen egiaztagiriak, bi kasuetan, eskabidea egiten den unean aurkeztu ez badira.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da, eta eskabidea aurkezteko erabili zen bide bera baliatuko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak.

Andoingo Udalak zuzenean lortuko du, ziurtagiri telematikoen bidez, Gipuzkoako Foru Ogasunak emandako zerga betebeharrak beteta edukitzearen egiaztagiria (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udala)



Bilketa), bai eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren historikoa ere (altak, bajak, aldaketak, jarduera epigrafeak), Gipuzkoako Foru Ogasunak emana.

Eskatzaileak edo erakundeak berriaz egin ahal izango du Andoaino Udalak datu horiek kontsultatzearen aurka, eta justifikatu egin beharko ditu horretarako arrazoiak, Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua dioenari jarraikiz; hala eginez gero, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzen diren unean entitateek ez badituzte egunean Udal Zerga Bilketak, Foru Ogasunak eta/edo Gizarte Segurantzak eskatutako ordainketak, egiaztatu egin beharko dute horiek betetzen dituztela.”

2.- Administrazio-espeditentea jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Andoaino Udaletxeko iragarki-taulan eta [www.andoain.eus](http://www.andoain.eus) Udal web-orrian argitaratuz, 30 eguneko epeaz, interesdunek espeditentea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

3.- Espeditentea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu araudia behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

#### **5.- Ebazpenen berri ematea, zehazki, 315/2024 zenbakidunetik 503/2024 zenbakidunera eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea, zehazki, 5/2024. aktatik 6/2024 aktara.**

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatezaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 315/2024 zenbakidunetik 503/2024 zenbakidunera. Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematen du baita erre, zehazki, 5/2024. aktatik 6/2024 aktara

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

#### **6.- Galderak, eskaerak eta proposamenak.**

Alkateak galde erreguen txanda ireki du eta lehenbizi Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kaixo, arratsalde on. Buenas tardes. Hoy 21 de marzo, se cumplen cuatro meses desde que el pasado 21 de noviembre se celebró la última comisión informativa de servicios.

“Cuatro meses en los que la única fuente de información o dación de cuentas, si es que se le puede llamar de esa forma, sobre lo que han estado realizando en las calles de Andoain han sido las redes sociales, Twitter, Facebook con notas de prensa.

“Entenderán que no es de recibo y comprenderán el malestar del Grupo Municipal Socialista.

“Un área tan importante como es el de servicios y que no se nos convoque mensualmente, como en el resto de áreas, es cuanto menos difícil de entender para nosotros, más si cabe, cuando hay temas tan importantes sobre la mesa en el que nos deberían informar.

Ayer finalmente se nos convocó, cosa que celebramos para el día 25, y, por lo tanto, esperamos que a partir de ahora se vaya a regularizar esa situación y se nos vaya convocando pertinentemente y a tiempo para informarnos de todas las cuestiones, como así se hacen en el resto de áreas. Muchas gracias.”

Fondón jaunak, Zerbitzuetako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“A nosotros también nos hubiese gustado haber podido convocar comisiones. Barkatu. Erderaz entzun dut eta. Guri ere gustatuko litzaiguke batzorde gehiago egin izana.

“Alde batetik, ez dugu aukera izan, dakizuen bezala, eduki ditugu arazotxo batzuk egunerokotasunean, eta, egia esan, kontratazioak eta egon direla medio, atzerapenak egon dira. Horregatik egon dira atzerapen guzti hauek. Hau da gertatutakoa orain arte. Astelehenean dugu eta, dakizuen bezala, puntu dezente daude atzeratuta daudenak, eta hemendik aurrera ahaleginduko gara forma ematen.

“Baina ez da ezer ezkutatzegatik eta ezer ez esateagatik. Sare sozialetan enteratu zaretena, enteratu zarete? Bai, egunerokotasunean hemendik zaudetelako ere bai.”



Alkain jaunak, dio:

“Muchas gracias por la respuesta. Sobre todo, por transparencia y por dar cuenta de los temas, hay otros departamentos que no han llevado ningún tema a votación, como puede ser en Servicios Sociales o en Euskara, hace poco, pero se han llevado asuntos a dar cuenta que consideramos que son importantes y que hay que darlas en las comisiones. Porque no puede ser que estemos enterándonos de qué se pone en carteles, de que se dice por aquí, por allá, y que no se celebre una comisión informativa, que es precisamente para eso, para informarnos. Entiendo que puede haber situaciones que sí que impiden que se celebren, pero convocar una comisión y decirnos en qué se está trabajando, en que se está haciendo en cuatro meses se podría haber hecho. Gracias.”

Fondón jaunak dio:

“Ez, nik bakarrik... esaten da kartelak jarri direla eta ez dakit zertaz ari zaren, baina, egia esan, egin diren gauzak dira egunerokotasunean ikusten dituzuenak eta herritar guztiei zuzendutakoak. Ez da egin inolako, hau da, ezohiko ezer ez, orain kontratazioak daude, kontratazio espediente asko bukatzen zirelako, zuen aurreko legegaldian, batzuk atzeratuta zeudelako eta horiek onartzeko zeuden. Eta horretan egon gara, bai, baina zerbitzuetan ez, ez da egin inolako megaestrukturarik edo horrelakorik, orduan ez dakit, baina kontutan daukagu eta ahaleginduko gara hileroko batzordeak egiten informatzeko behar dudak guztiarekin.”

Alkain jaunak erantzuten du:

“Os lo agradecemos y si así va a ser, comentaba lo de los carteles. Hablaba de los carteles que se han puesto en las zonas de huertas públicas en Leitzaran, en el que se les explica que tienen que desalojarlas porque se va a hacer otra historia. Puedo recordar el cambio de contenedores de un sitio a otro, que se han informado mediante fotos, por redes sociales, en las que no se nos ha explicado el criterio con el que se ha hecho. Se celebró una reunión con Ipar Haizea, tampoco se dijo nada de eso.”

“Puedo seguir con más cosas, el retraso de las obras en el túnel, es cierto que el alcalde dio cuenta a la Comisión de Empleo y Juventud, entiendo que dio cuenta, y porque es consciente que no se estaban celebrando estas comisiones y que no se nos estaba informando. Y lo hizo ahí entonces. Creo que he dicho todo lo que tenía que decir, y queda por vuestra parte del compromiso de que se van a celebrar en tiempo y de forma. Gracias.”

Jarraian, Parrón andreak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Hablando de participación y transparencia, ¿se está respondiendo a los escritos de los ciudadanos que se dirigen al Ayuntamiento, en el que trasladan los problemas incluso a veces sugerencias?”

Alkate jaunak, erantzuten du:

“Nik dakidala bai, eta horrela ez dela uste baduzu esan, baten bati ez baldin badiogu erantzun, esan.”

Jarraitzen du, Parrón andreak:

“Es responsabilidad del equipo de Gobierno responder en tiempo y forma. Si nos consta, hay una de más de cinco meses, del 16 de octubre que no ha respondido, otra del 24 de noviembre, que tampoco se ha respondido, y la última que nos consta, una del 4 de diciembre, que no se ha respondido.”

Alkate jaunak, erantzuten du:

“Guk dakigula egia da, iradokizun asko jasotzen ditugu, eta ez dizuet esango ezinezkoa denik hori zeukan. Esaten baldin baduzu, egia izan daiteke, baina guk jasotzen ditugun.”

Berriro ere, Parrón andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nos parecía importante, porque es que los ciudadanos no son tonterías, lo te están trasladando, están trasladando problemas como el que hay a la entrada y salida de los colegios, con las plazas de aparcamiento para personas con dificultades, con de problemas de movilidad, que están siendo ocupadas por ciudadanos que no tienen esos problemas de movilidad. Y creo que eso es un problema importante. De eso te podría hablar, de otro, otro tanto de problemas más. Pero estas son las que nos han llamado la atención un poco.”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Ba esaten dizut, guk...”

Parrón andreak, dio:



**Andoaino Udala**

**Akta: Osoko Udalbatza**

OHIKO BILKURA: 2024/03/21

**Acta: Pleno Municipal**

SESIÓN ORDINARIA: 21/03/2024

“Que haya una de cinco meses, pues creo que los ciudadanos se merecen un poco más.....”

Alkate jaunak dio:

“Dudarik gabe, eta baldin badago bost hilabete, ez da guk nahita erantzun nahi ez ditugulako baizik esaten dizut, guk, gainera, hartu-eman errazteko, horretan badakizue, bueno, APPa indartu egin dela. Badaukagu asmoa baita ere beste komunikazio iturri batzuk edo komunikazio bide batzuk herritarrekin mintzatzeko. Eta kontua da, guk jasotzen ditugun iradokizun guztiak ustez erantzuten ditugu, baina baldin badaude erantzun gabe batzuk, ba nahi baldin baduzu bihar bertan deituko dizut zeintzuk diren eta erantzungo ditugu. Baina ez da ez, ez ezer ezkutatzeko edo erantzun gabe uzteagatik ariketa bat, baizik eta iradokizunen artean ez zelako behar dan bezala iritsi edo ez dugulako behar den bezala kudeatu. Besterik ez.

“Besterik gabe amaiera emango diogu gaurko udalbatza honi.

“Gogoratu nahi dut, dakizuen bezala, azken egunetan korrika dabilela herriz herri euskararen aldeko ekimen handienetako bat. Larunbat arratsaldean pasatzen da Andoaindik. Andoaingo Udalak bere kilometroa izango du. Herriko eragile askok eta askok ere bai. Eta herritarrak animatzen ditugu bertan parte hartzera eta ondo pasatzera. Egongo gara.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 19:30 minutu zirenean. Idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorri Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.

**Alkatea**

**Behin-behineko idazkaria**



EKS | CSV: **ESKU1c320362-df9e-48c3-99e7-9ef01b696e13**

Egiastatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>